



Kontzertu berezi baten atarian

Datorren eguaztenean, Garik disko berria aurkeztuko du Bilboko Arriaga antzokian. Kontzertu berezi horretan, eta Hertzainaken 35. urteurrenaren harira, Josu Zabalak eta berak hainbat abesti ezagun joko dituzte akustikoan, gitarra eta soinua eskuetan. • 2-3

*“Bigarren tokian
amaitzea dugu helburu,
lauko finala Durangon
jokatu ahal izateko”*

Mirari Aldekoa Martinez
Tabirako saskibaloia taldea • 19



**Gizon batek Neberondo inguruan
17 urteko neska bat jazarri duela
salatu dute elkarretaratzean**

Iurretara | Eraso sexistaren aurrean, Iurretako Udalak eta
Anderebide elkarteak elkarretaratzea egin zuten. • 7





**ETXEGO
ZABALIKI!**

LARUNBATERO
Otsailak 16 - Apirilak 13
17:00-20:30

**Etxegora hurbildu
eta jolastu, elkartu,
gozatu, ikasi, ezagutu...**

JARRAITU
GAITZAZU
PROGRAMAZIO
GUZTIAREN
BERRI IZATEKO!
@iugazte



Iurretara
Elizateko Udala



Iñaki Garitaonandia Murgiondo
Legazpi | 1963
Josu Zabala Ajuriagerra
Otxandio 1954

“Desertu bat zeharkatu genuen arrakasta heldu arte; horrek demostratzen du indar handiko jendea ginela”

Otsailaren 27an Garik disko berria aurkeztuko du Arriagan. Kontzertu berezi horretan, Josu Zabala Hertzainaken abestiak gogoratuko ditu, taldearen 35. urteurrenaren harira

BILBO • JONE GUENETXEA

Bilbo Hiria irratian gelditu dira Gari eta Josu Zabala, otsailaren 27ko kontzertua prestatzeko. Entsegua-ren tarte bat eskaini diote ANBOTOrri, elkarrizketarako. Galderak amaituta, Garik gitarra hartu du. Josuk, berriz, soinua. ‘Sigarrillos amariyos’ jotzen hasi dira, akustikoan, zuzenean. Eta kazetaria, hantxe, bien aurrean, entzuten ari dena sinistu ezinik. ‘Nik enkargatua izan nahi nuen’... Bizitzak emandako plazer txiki horietako bat izan da, seguru.

Zein kontzertu prestatzen ari zarete Arriagarako?

Gari: Asmoa *Beste denbora batean* disko berriaren aurkezpena egitea da. Orain urtebete elkartu egin ginen biok eta mahai gai-

nean jarri genuen aukera hori, aurtun Hertzainaken 35. urteurrena ospatuko dugulako. Ez du ezer esan nahi, baina, beste alde batetik, badu esanahi berezia. Diskoa grabatzen nembilela, efemeride hori iritsi zen, hain justu. Horren harira, saio horren baitan zer edo zer asmatzea pentsatu genuen. Aspaldi ez gara Josu eta biok elkarrekin aritu, baina egin dugu zeozero inoiz. Gainera, oso gustuko dudana bikote formatuan, gitarra akustikoarekin eta soinuarekin. Horrela, aukera dugu Hertzainaken errepertorioari beste ukitu bat emateko. Ez da gaurreguneratzea, beste ukitu bat ematea baizik. Horrela planteatu genuen eta horixe da Arriagako kontzertuan aurkeztuko duguna.



Entseguekin ari zarete. Zer moduz?
Josu: Berarentzat niretzat baino errazagoa da. Bera behintzat martxan eta forman dagoen musikaria da. Ni, ostera, aspaldi ez naiz ibili horrelako kontuetan. Lagunartekoetan baino ez naiz ibiltzen, noizean behin, soinua hartu eta zarata apur bat ateratzen, inolako konpromisorik ba-

“**Diskoa grabatzean, efemeride hori iritsi zen. Saio horren baitan zeezer asmatzea pentsatu genuen**”
GARI

rik. Hau, baina, berezia da, disko berri baten aurkezpena delako, leku oso serio batean gainera. Beraz, ganoraz egin beharrekoa da. Saiatuko gara kunplitzen.
Zelan sortu da bion arteko elkarlana? Zelan sentitzen zarete?
Gari: Biok berriro elkartzea eszenatokian, berak idatzitako kantei haize berri bat emanda eta ahalik eta duintasun handienarekin, erronka txiki bat da. Bestalde, patuak horrela nahi izan duelako, nolabaiteko omenalditxo bat ere bada, kakotxen artean. Hau jada oso zahartuta dago eta [barrez].
Josu: Omenaldiarena entzunda... badakizu askotan zer gertatzen den. Orain arte lasai nengoen, baina kezkatzten hasi beharko naiz. Testamendua egiten hasiko naiz.

“**Lagunartekoetan baino ez naiz aritzen, noizean behin; soinua hartu eta zarata apur bat ateratzen**”
JOSU ZABALA

Gari, zelan planteatu duzu disko berria?
Gari: Azken urte hauetan, ni gustura sentitzeko espazio sonoro bat sortzen saiatu naiz. Gustura sentitu nahi izan dut, musika horrekin inguruan egitura erraz bat sortuta. Proiektuetan sartze-ko indar handia behar dela sentitzen dugu gaur egun musikan gabiltzanok, gero etekin ez hain zabalak izateko. Hor ondo orekatu behar dira indarrak. Egitura sinple bat izatea garrantzitsua izan da, musikalki proiektua sendotzeko eta ofizioa garatzeko.
Datorren asteko kontzertuak zein egitura izango du?
Gari: Lehenik, azken bi diskoen errepertorio bat eskainiko dugu. Aspaldiko kanten errepasotxo bat ere egingo dugu. Bigarren partean, Hertzainaken errepertorioa izango dugu Josurekin. Ondoren, nire banda etorriko da.
35 urte atzera eginda, Hertzainaken sorreran zelakoak ziren sasoi hartako Gari eta Josu?
Josu: Gazteagoak ginen. Indarrez beteta. Garai oso ezberdin batean bizi ginen. Demokrazia estreina-tu berria, desenkanto garaietan. Ez du zerikusirik gaurko munduarekin. Garai hartan, gauza asko ziren posible, gaur egun pentsaezinak direnak. Oro har, jendearen filosofia oso ezberdina zen. Ilusio eta desenkanto artean genbiltzan. Eromen puntu bat geneukan askatasun estreinatu berri hartan. Oso ezberdinak ginen gu, eta orduko garaia ere oso ezberdina zen.

Gari: Nik azpimarratuko nuke, gehienbat, musikari moduan zenbat urte pasatu diren. Bestalde, sumatzen dudana da hainbat kanta eta kanta horien barruan hainbat esaldi eta ideia gaur egun ere bizirik daudela. Horregatik, abesti hauek jotzerakoan, defendatu egin daitezke. Beste formatu batean izan arren, hainbeste zaratarik gabe, indarra dute, askoz mantsoago jo arren.
Josu: Garai hartan, guk mundu perfektu bat nahi genuen eta, urteak pasatu arren, mundua oraindik ez da perfektua. Horregatik, garai hartako kezka eta aldarrikapen askok badute zentzua gaur egun ere.
80ko hamarkada hartan, zelan bizi zenuten letren sormen prozesua? Bazegoen filtro edo galbaherik? Gaur egun izango zenukete horren kezkarik?
Josu: Sasoi hartan, ez genuen zentsurarik. Zentsuraren amaiera zen eta geure burua ere ez genuen zentsuratzen. Esango nuke jendeak abestiei ematen zien interpretazioagatik arazo gehiago izango genituzkeela, letrek ziotenagatik baino. Garai hartan, gauza asko gertatzen zen. Guk kanta bat egin eta jendeak mezu hori bere esparrura bideratzen zuen. Gure kantu asko erabiliak izan ziren, eta, seguraski, erabiler hori oso zentsuratua izango zen orain. *Bakean utzi arte eta Si*

“**Azken urte hauetan, ni gustura sentitzeko espazio sonoro bat sortzen saiatu naiz**”
GARI

“**Oso independenteak izan ginen, baina jendeak erabili egiten gintuen. Lerrokatu egiten gintuzten**”
JOSU ZABALA

vis pacem parabelum biolentziaren kontrako aldarrikapenak dira funtsean. Baina, askorentzat kontrako bidetik joan ziren.
Gari: Uste dut ez zirela hitzak barrik. Orokorrean, gure jarrera talde moduan zelakoa zen. Alde horretatik, oso talde zorua zen. Indarrez beteta. Eta taldearen jarrera horrek eta gure izaera autokritikoak esandako hori janzten zuten.
Josu: Oso independenteak izan ginen, baina jendeak erabili egiten gintuen. Eta lerrokatu egiten gintuzten.

Gari: Hertzainaken arrakasta ikaragarria izan baitzen. Kontuan hartu behar da lehen diskoa kaleratu aurretik zein zen gure egunerokoa. Eguneroko oso latza bizi genuen. Eta, bat-batean, beste espazio batera pasatu ginen. Proiektuak eztanda itzela egin zuen, baina horrek ere bultzatu gintuen gure konpromisoa ehuneko ehunean betetzera. Eta horrek desgaste handia dakar nahitanahiez. Horrelako bola batean sartu ginen, non jendeak interpretatzen zituen gure kantak modu batean, eta gu horren kontra geunden, kontraren kontra. Eta beti jardun dugu jarrera horrekin.
Atzera begira, Hertzainakekoak sasoi onak eta latzak izan ziren?
Gari: Kontuan hartu Josuren eta bion artean hamar urteko aldea dagoela. Nik 18 urte nituen, eta garai horretan diferentzia nabarmena da. Euren bide pertsonala eta nirea ezberdinak ziren. Nirea askoz ere murriztagoa zen. Ni beste mundu batetik nentorren. Txokea ikaragarria izan zen. Taldearen dinamikan sartu nintzen, baina, egia esan, proiektuak eztanda egin zuenean oso gaizki sentitu nintzen. Oso ahul, ez nuelako ezer ulertzen. Ez zen nire proiektua. Sartu berria nintzen, eta, bat-batean, neu nintzen proiektu horren aurpegia. Ez nekien zer egin, ezta zer esan ere. Eta, horrelakoetan, erabaki oso txarrak hartzen dira. Horrek ondorioak ditu zure bizitzaren ibilbidean. Ondorio horiek baztertzeara ez da erraza. Sufrimendua alde horretatik sentitu nuen. Hala ere, egia da gaur egun, distantziarekin begiratuta, kapaza naizela Josurekin elkartu eta kanta hauekin disfrutatzeko.
Garik dioenez, taldea sortuta zegoen bera sartu zenean. Zelan fitxatu zenuten?
Txanpi bateria-jotzailea sartu zen, eta erdi legazpiarra zen. Gari Legazpian bizi zen sasoi hartan. Xabier Montoiarekin desadostasunak izan genituen, eta, taldea utzi zuenean, tarte batean kantari barik gelditu ginen. Txanpik esan zigun bazela mutil lotsabako eta ausart bat Legazpian. Gene eta biok bere kontzertu batera joan ginen. Ziper taldean jotzen zuen Garik. Han ibili ginen, bere kontzertua hankaz gora jarri nahian, txistuka, probokatzeko asmoz, zelakoa zen ikusteko. Gure mar-txa aguantatuko zuen jakin nahi genuen. Berarekin probatzea erabaki genuen, baina baldintza batzuk bete behar zituela esan genion. Horien artean, Gasteizera bizitzera etortzea.
Gari: Baldintza gogorragoak ere izan ziren [barrez]

Josu: Putakume hutsak ginen sasoi hartan. Ez genuen ezer eskaintzen, baina eskatu bai. Dena exigitzen genuen, balizko es-

“**Eguneroko oso latza bizi genuen. Eta, bat-batean, beste espazio batera pasatu ginen**”
GARI

“**Ziper taldean jotzen zuen Garik. Bere kontzertua hankaz gora jarri nahian ibili ginen**”
JOSU ZABALA

perantza bat zegoelako egunen batean egundoko taldea izango ginela. Baina ez zegoen hori demostratzeko modurik, eta, hala ere, dena eskatzen genuen. Azkenean, onartu egin zuen proposamena. Zer edo zer ikusiko zuen ideia horretan.
Taldearen arrakastaren eztanda gertatu arte, zelan bizi zineten?
Josu: Gu miserable kuadrilla bat ginen. Ez genuen lanik. Ia karitate publikotik bizi ginen. Lagun mordo batek laguntzen zigun. Batzuek bazkaltzera gonbidatzen gintuzten noizean behin. Beste batzuek edariak eta drogak dohainik ematen zizkiguten. Ni horrela bizi izan nintzen lau urte, eta Gariri ere bi edo hiru urte tokatu zitzaizkion. Hertzainaken, desertu bat zeharkatu genuen arrakasta heldu arte. Horrek demostratzen du benetan indar handiko jendea ginela. Ez zen erraza izan gaintitu genuena gaintitzea.
Gari: Lehengo batean, mutil batek Eskorbutoren argazki bat erakutsi zidan, bera oso zalea zelako. Eskorbutokoak nire adinekoak ziren. Nire taldekideak, aldiz, askoz ere helduagoak ziren. Euren hainbat kontzertutan jo genuen. Ni euren adinekoa izanik, hauekin alderatuta oso ume ikusten nituen. Josu eta hauen ingurua Gasteizen oso erradikala zen zentzu askotan. Beraz, kontrastea nabarmena zen.
Nola erabaki zenuten zuen ibilbideari amaiera ematea?
Josu: Arrakastaren olatuan zortzi urte egon ginen, eta erabaki genuen gure historia osatuta zegoela. Batzuek beste gauza batzuk egin gura zituzten eta gure barne koherentziagatik ere bai. Amaiera naturala izan zen.

“Estazioko eremuan berdegune handi bat egin daiteke, birika berde bat sortzeko”

Durangoko EH Bilduren alkategaia da Ima Garrastatxu Urbaneja, eta bere proposamenen berri eman du

DURANGO • MARKELO NAINDIA

Alkategari izateko ardura "gogotsu eta indartsu" hartu du, eta uste du emakumeek horrelako pausoak ematea garrantzitsua dela, besteentzat bide bat zabaltzeko balio dezake eta. Gaztetan euskaldundua eta kultur arloan ibilia da. Kazetaritzan lizentziatua, funtzionarioa da Aldundian, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sailean. Langile Batzordeko kide ere bada.

Trapagaranen jaio zinen, eta Durangora etortzeko erabakia hartu zenuen. Aurkezpen bidean azaldu zenuen familiatik datorkizula gauzak aldatzeko gogoia. Alkatetza lortuz gero, zer aldatuko zenuke Durangon?

Orain 25 urte baino gehiago etorri nintzen Durangora. Oso leku onean dago, hiriburuetatik hurbil. Liburu eta disko azoka zen neukan erreferentzia. Heldu nintzenean, Durango berde bat topatu nuen, asko gustatzen zitzaidan. Jendea kaletik, komertzioa bizirik... Ikusten dut bizi kalitate hori txikitzen joan dela; gero eta berdegune gutxiago daukagu, eta horixe da egungo politiken tendentzia. Horixe da aldatu gura dudana gauzetako bat.

Estazioko eremua birmoldatzeko planari buruz galdeketa eskatu dute 3.000 lagunek, Erabakik sustatuta. Zure ustez, hauteskunde aurretik egin beharko litzateke?

Galdeketaarena eta hauteskudeena bide bi dira, eta ez dira zertan gurutzatu. Sinadurak uztailen aurkeztu ziren, eta uste dugu denbora pasatu dela prozesua martxan jartzeko. Hauteskundeak egon zein

ez, gure proposamena berdina da: galdeketa ja egin behar da, herritarren iritzia jakiteko.

**Zertarako aprobetxatu daiteke
60.000 metro karratuko gune hori?**

Lehenik eta behin, obrak gelditu egin behar dira, azken osoko bilkuran onartu zen bezala. Gero, gure ustez, Durangok berdeguneak

Correosen eraikinean kultur etxea, ludoteka edo ikasteko gelak eraiki ahal dira"

behar ditu. Berdegune handi bat egin daiteke, herrirako birika berde bat sortzeko. Ez hori bakarrik, aisialdirako eremua ere egon behar da, durangarrok bertan elkartzeko, jolasteko, irakurtzeko... Osasunerako Mundu Erakundeak pertsonako 10 metro karratu berdegune egotea gomendatzen du, eta Durangon 8 dauzkagu. Etxeak eraikitzeko dauden proiektuekin, metro horiek oraindik gutxiago izango dira berdegune berriak sortu ezean.

Udal ikerketak esan du aire kutsadura dela herritarren arazo nagusia.

Gure planteamendua mahai bat eratzea da, udal teknikariek, zinegotziek, enprekin eta herritarrek. Horrelako mahai bat badago martxan Elorrión, eta jendea pozik dago. Arazoak aztertu eta informazioa herritarrei bideratze-



ko balioko luke. Bestalde, legea bete egin behar da, eta udala adi egon beharko litzateke.

**Zenbait eraikin publiko hutsik dau-
dela salatu duzue orain aste bi.**

Ez bakarrik hutsik, baita oso egoera txarrean ere. Elkartek espazioak eskatzen dabilta, eta konponbidea badago udalaren esku. Garai jau-regian elkarteen etxe bat egitea da gure proposamena, euren artean hartu-emanak sortzeaz aparte agenda sozial bateratu bat eratzeko. San Faustoko baserria hango fami-
liek erabiltzeko proposatzen dugu. Erabiltzen ez denean, Landako Gunea zabalik egon behar dela uste dugu, durangarrentzako espazio bat delako. Correosen eraikin zahar-
rean, kultur etxea, ludoteka edo ikasteko gelak eraiki ahal dira...

EH Bilduk auzo batzarrak egin ditu legealdian. Segitzeko asmoa duzue?

Bai. proiektu horretan gehitzera nator, auzoetan egin den lana oso garrantzitsua delako. Inportantea da auzotarren nahiak eta kexak entzun, eta gero soluzioak topatzea. Batzar horiek udalak deitutako eztabaida eta erabakigune bihurtzea da gure ideia.

Durangon, euskararen erabilera %22,7koa da. Zelan indartu daiteke?

Uste dut datuak ez direla onak, eta neurriak hartu behar direla. Udale-
ra begira, barne funtzionamendua
euskaraz izan behar dela uste dugu,
euskara izan behar dela lehen hiz-
kuntza. Webgunea eta sare sozia-
lak euskaraz izatea, enpresek hiz-
kuntza irizpideak errespetatzea,
udalagaz hartu-emana euskaraz

izatea gura dutenen eskubidea bermatzea... Kanpora begira, hezkuntza ez formalean euskararen erabilera bultzatuko dugu, aisialdian eta kirolean, adibidez. Nire iritziz, euskara eta feminismoa zeharlerroak izan beharko lirateke, egiten ditugun gauza guztietan.

2018an 41 eraso sexista salatu zituzten Durangon. Badago lana.

Asko, zoritxarrez. Biolentziarena izebergaren tontorra da. Indarkeria matxistaren aurkako plan integral bat proposatzen dugu, udal herri-tarrak eta mugimendu feminista agente aktibo izanda. Bestalde, heziketa oso garrantzitsua dela ikusten dugu. Ezinbestekoa da eredu aldatzen joateko. Ikastetxe guztiekin mahai bat sortzea gura dugu, heziketarako plan bat adosteko.

anboto
komunikabideak

**Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558**

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko otsailaren 22a
17. urtea - 752. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abaso Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Itxaso Martinez de Arenaza Yarza.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Karolina Suarez Borges.
Maketazailerak: Bea Sierrasumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarra Etxegibel.

AGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Miguel Angel Gomez diputatua eta Rosa Maria Trinidad, martitzeneko agerraldian.

Autoa gidatzerakoan mugikorra ez erabiltzeko mezua kaleratuko dute

Iragarkiak ipiniko dituzte Bizkaiko 100 autobusetan eta beste hainbeste markesinatan

DURANGO • MARKEL ONANDIA

Stop Accidentes elkarteak eta Aldundiko Garraio Sailak sustatuta, kontzientziazio kanpaina bat egingo dute datozen hiru hileetan, gidatzerako orduan mugikorraren arriskuez ohartarazteko. Bizkaiko 100 autobusetan eta beste hainbeste markesinatan ipiniko dituzte iragarkiak.

Rosa Maria Trinidad Stop Accidentes elkarteko presidentearen esanetan, distrazioa da auto istripu gehienen atzean dagoen kausa, eta, sarritan, mugikorra erabiltzeagatik izaten da. Gainera,

joera gorantza doala dio. Berak emandako datuen arabera, telefonoari kasu egiterakoan seinaleen %40 galtzen du gidariak.

Miguel Angel Gomez garraio diputatuak adierazi du elkarlana sustatzen dutela horrelako kanpainetan, eta gidatzen dabilta-

Trinidaden esanetan, telefonoari kasu egiterakoan seinaleen %40 galtzen du gidariak

nean telefono deiei zein whatsapp-ari kasurik ez egiteko dei egin die herritarrei. Bestalde, Bizkaibuseko zerbitzuan segurtasuna lantzea da euren ildo nagusia.

24 orduko pediatria zerbitzuaren eskaera, Durangaldeko udaletan

Landakoko zerbitzua egun osora eta asteburuetara luzatzea gura dute sustatzaileek



Plataformaren aurkezpenean jende ugari elkartu zen, iazko maiatzean.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Pediatria 24h plataformak mozioa erregistratu du Abadiño, Atxondo, Berriz, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Zaldibar eta Zornotzako udaletan, hurrengo osoko bilkuretan eztabaidatu dezaten. Durangoko Landakoko osasun zentroan eskaintzen den larrialdietako pediatria zerbitzua 15:00etatik 17:00ak artekoa da, eta hori egun osora eta asteburuetara luzatzea gura dute sustatzaileek.

Umeek larrialdi bat dutenean Gurutzetaraino joan behar izaten denez, "osasun arreta baldintza berdintasunean jasotzeko eskubi-

dea urratu" egiten da euren ustez. Nabarmendu dute Durangaldean 12.500 haur bizi direla. Eusko Jaurlaritzak aldeko erantzunik ez diela

"Osasun arreta baldintza berdintasunean jasotzeko eskubidea urratu" egiten da euren ustez

Gurasoen eskaera udalek eurek bultzatzea da plataformakoek lortu gura dutena

eman kritikatu dute, eta mozioak aurkeztuta, gurasoen eskaera udalek eurek bultzatzea da plataformakoek lortu gura dutena.

Durangon iazko martxoan landu zuten mozioa, baina ez zuten onartu. Gobernuak ordezkio mozioa aurkeztu zuen, Osasun Saila zerbitzua aztertzen dabilela iragarritz eta lanean jarraitzeko eskatuz.

5.000 sinaduratik gora

Iaz sortu zen 24 orduko pediatria eskatzeko plataforma. Sinadura bilketa bat hasi zuten eskualdean, eta dagoeneko 5.000 sinaduratik gora batuta dituzte.

Udaberriko eta udako egonaldietarako inskripzioa hasiko du Berbaro elkarteak

DURANGO • M.O.

Berbarok prest ditu udaberriko egonaldietarako eta udalekue-tarako ekintzak, eta otsailaren 26an hasiko du inskripzioa. Martxoaren 5era arteko epea egongo da, eta interesdunek bulegora joan beharko dute apuntatzera; ez dute helbide elektronikoz eta telefonoz izenik hartuko. *Udaberrian olgetan* eta *Udan olgetan* ekintzetan izena eman ahala banatuko dituzte plazak, eta zozketa egingo dute kanpaldi eta ibiltarietarako.

Ikusmen urritasunaz hausnartzeko erakusketa ipini dute institutuan

Zenbait obra erliebean erakusten dituen erakusketa da, eta, horrela, ukimenaren bidez ulertu daitezke koadroak

DURANGO • M.O.

Durangoko institutuko ikasle bategiaren ikusmen urritasuna dauka, eta, gaiak hausnartzeko, erakusketa berezi bat ipini dute. Bilboko Arte Ederren Museoko ekimen ibiltari bat da, zenbait obra erliebean erakusten dituen. Horrela, ukimenaren bidez ulertu daitezke koadroak.

Erakusketa ikasleentzat da. Nerea Etxegibel irakasle eta zuzen-

daritzakideak azaldu du arteagaz lotura duten ikasgaietako ikasleak, gela egonkorrekoak eta zereginen gelakoak ari direla pasatzen. Begiak estalita sartzen dira, itsuen azalean ipintzeko. Itziar Gutierrez erakusketaren arduradunaren esanetan, "desorientazioa eta segurtasun falta esperimintatzen dituzte". Gero, artelanak aztertu eta solasaldia egiten dute.



Institutuko zenbait ikasle Itziar Gutierrez arduradunagaz, martitzenean.

Astelehen goizaldean 2,3 graduko lurrikara txiki bat gertatu zen Mañarian

Txikia izan arren, hainbat mañariarrek sentitu zuten

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Astelehen goizaldean, 03:00 inguruan, 2,3 graduko lurrikara bat sentitu zuten Mañarian. Lurrikara txikia izan zen, baina lo zeudenetako asko iratzartzeko adinakoa. Ohea eta inguruko altzariak dardarka jarri zituela kontatu dute lurrikara entzun zuten mañariarrek.

Arturo Apraiz zornotzarra (Atxondon bizi da) Geologia Graduko irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean eta, azaldu duenez, noizean behin gertatzen dira lurrikarak Euskal Herrian; baina "txikiak, gehienak bi-hiru gradu artekoak, eta esporadikoak izaten dira, bi-hiru urterik behin", adierazi du. Apraizen esanetan, "sekula ez dugu eskala handiko lurrikararik izango hemen, plaken arteko mugetatik urrun gaudelako".

Lurrikara txikiak zelan sortzen diren azaldu du. "Lurrazala ez da guztiz uniformea toki denetan. Zelanbait esateko, pieza txikietan banatuta dago. Noizean behin, pieza horiek ezegonkortu eta mugitu egiten dira. Esfortzu handirik behar ez duten mugimendu horiek

eragiten dituzte lurrikara txikiak", azaldu du Apraizek.

Ezin daiteke segurtatu ehuneko ehunean lurrikararen epizentroa non egon den. Hala ere, Apraizen ustez, Urkiolako failak ditu aukerarik gehien erdigunea izateko, edo

Euskal Herrian sumatzen dira lurrikarak, baina txikiak dira, eta esporadikoak denboran

Lurrikararen epizentroa Urkiolako failan egon daitekeela uste du Arturo Apraiz geologoak

hari lotutako besteren batek. Anbotoko mendilerroaren hegoaldeko mugan dago Urkiolako faila, ekialde-mendebalde norabidean. Gaur egun, "apenas du aktibitate", baina, azken batean, haustura bat da eta mugimendu txikiak gertatu daitezke.



Logelako oheak eta altzariak dardaran jartzeko adinako lurrikara izan zen, mañariarrek kontatu dutenez.



ANDONI MADARIAGA

Zer igarri zenuen?

Eliza inguruan bizi gara, eta sarritan, eguerdi inguruan, kanterako leherketak sentitu izan ditugu, baina inoiz ez gauez. Astelehen goizaldean zarata batez itxartu ginen eta segituan dardara bat sentitu genuen. Lurrikarak logelako gau mahaia mugitu zigun, eta susto handia hartu genuen.

ko baserri batean bizi naiz eta hango zartadak entzuten ohituta nago. Hau, baina, desberdina izan zen, indartsuagoa. Ohea alde batera mugitu zen apurtxo bat. Nire anaia etxean zegoen eta hark ere sumatu zuen.



JON ZAMAKONA

Nola sentitu zenuen lurrikara?

Ohean nengoen eta bi-hiru segundo iraun zuen. Harrobi ondoren.

nuen. 03:15 inguru zen eta bane-kien ezin zela harrobitik etorri. Hasieran, bonbonaren batek ez-tanda egingo zuela pentsatu nuen edo antzerako zerbait gertatu zela, baina gero ohartu nintzen lurrikara bat izan zela.



AINHOA ALZAGA

Asko igarri zenuen lurrikara?

Lo nengoen gertatu zenean. Dardara edo burrundara moduko bat sumatu

Askondo inguruko lanen atzerapena "onartezina" dela dio Totorikaguenak

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Askondoko biribilgunea kendu eta Bixente Kapanaga kalea noranzko bakarrekora bihurtuko duten lanen atzerapenagatik "haserre" eta "arduratuta" azaldu da Iñaki Totorikaguena alkattea. Atzerapenari "onartezina" deritzo. Obrak amaitzea gura dutela eta enpresako arduradunekin astero batzartzen direla esan du. "Amaitzean, azalpenak eskatuko ditugu eta behar diren erabakiak hartuko ditugu", dio.

Horren aurrean, EH Bilduk nabarmendu du "hainbat bider" azaldu dutela euren kezka, "baina udal gobernuak ez dio orain arte behintzat kontu honi modu serioan heldu". "Eragozpen guztien aurrean, beharrezko neurriak hartu eta ardurak betearazteko" lan egingo dute.

Gerlari kirol zentroak irabazi du enpresa proiektuen lehiaketa

Udalak 6.000 euroko laguntza emango dio proiektuari

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Jorge Hurtado durangarrak aurkeztutako proiektuak irabazi du Iurretako enpresa proiektuen lehiaketa, eta udalak emandako 6.000 euroko laguntza irabazi du sari moduan. Hil honen hasieran zabaldu duten Gerlari zentroak hainbat kirol jarduera eskaintzen ditu: Wing-Chun eta Kick Boxing-a ez ezik, mantentze-gimnasia, yoga, pilatesa eta ariketa hipopresiboak egiteko aukera ere eskaintzen dute. Hurtadok azaldu duenez, emakumeentzat defentsa pertsonaleko ikastaroa ere eskaini gura du aurrera begira.

Herrigunean enpresa proiektua sustatzeko helburuagaz sortu zuen enpresa proiektuen lehiaketa

udalak, orain hamar urte. Urte hauetan, hortz klinika, estetika zentroa eta paper-denda zabaldu

Emakumeentzat defentsa pertsonaleko ikastaroa ere eskaini gura dute aurrera begira

dituzte herrian. Udalak laguntza-ren %70 eman dio aste honetan enpresa lehiaketaren irabazleari. Gainontzeko %30a zentroa zabaldu eta urtebetera jasoko du. Udalagaz lankidetzan, "eskaintza polita" egin gura du Hurtadok.



Dantzari kalean zabaldu du Jorge Hurtadok Gerlari kirol zentroa.

Korrika egiten zebilen 17 urteko neska bat jazarri du gizon batek

Autoan masturbatzen ibili ostean, autotik irten eta atzetik jarraitu zion neskari

IURRETA • MARKEL ONAINDIA

Gizon batek 17 urteko neska iurretarr bat jazarri zuen astelehen arratsaldean, San Andres auzotik Neborondora bidean, neska korrika egiten zebilela. Auto barruan masturbatzen ibili ostean, bidera irten zitzaion gizona. Gero, korrika alde egin zuen neskak, baina gizonak autoan jarraitu zion atze-

tik. Baserri batera heltzea lortu, eta laguntza eskatu zuen neskak.

Adin txikiko neskaren esanetan, 30 urte inguruko gizon bat izan zen eraso egin ziona, eta azaldu du "harritu" egin zela gizon gaztea izanda. Familiak salaketa ipini zuen hurrengo egunean, Durango-ko komisarian. Sare sozialetan ere abisu eman zuen, inguru horretan

jende ugari ibiltzen delako, kirola egiten zein pasioan. Hain justu, ez da ingurunean horrelako eraso sexistak gertatzen diren lehen aldia; iazko maiatzean ere hainbat salaketa egon ziren.

Asteleheneko eraso gaitzeste-ko asmoz, Iurretako Udalak eta Anderebide elkarteak elkarretaratzea antolatu zuten eguaztenerako.



Eguaztenean hainbat herritar batu ziren lurretan eginiko mobilizazioan.



Iazko argazki lehiaketan irabazle izan zen argazkia: 'Zaldibarko narkoak'.

Talasoterapia egonaldia saria, ANBOTOk argazki lehiaketan

DURANGALDEA • M.O.

Inauterietako irudirik ikusgarrienak batzeko asmoz, argazki lehiaketa antolatu du ANBOTOk. Saria ez da edozelakoa: Zumaia-ko Zelai Talasoterapia Hotelean lagun birentzako egonaldi bat. 90 minutuko zirkuitu termalaz aparte, gau bat, buffet gosaria eta afaria edo bazkaria sartzen dira egonaldian. Leku ederrean dago hotela, itsaslabarrera begira. Hain zuzen, erreserbatutako gelak ere itsasorako ikuspegia dauka. Lehiaketa irabazten duenak gura duenean gozatu ahaliko du egonaldiaz.

Inauterietako argazkiak www.anboto.org webgunera igo beharko dira, otsailaren 28tik martxoaren 10era bitartean. Hurrengo egune-

Zirkuitu termalaz aparte, gau bat, afaria eta gosaria ere sartzen dira egonaldian

tik martxoaren 17ra arte bozkatzeko aukera egongo da, eta botorik gehien dituenak irabaziko du.

2019KO INAUTERIEKOKO ARGAZKI LEHIAKETA

Parte hartzeko, igo zure argazkia anboto.org helbidera, otsailaren 28tik martxoaren 10era arte
Martxoaren 11tik 17ra arte izango duzu bozkatzeko aukera

Webgunean botorik gehien duen argazkiaren egileak
HOTEL-TALASOTERAPIA ZELAI ZUMAIAN
ESPERIENTZIA ZORAGARRI BAT irabaziko du



**Flyshen gune paregabea,
Itzurungo hondartzan**

**Gura duzunean eta
gura duzunagaz gozatzeko!**

Bi pertsonentzako gau bateko egonaldia (Logela itsasora begira). Afaria edo bazkaria eta buffet gosaria barne, itsaslabarrean kokatutako bista ikusgarriak dituen jatetxean. Eta zirkuitu termala itsasoko uragaz beteriko igerilekuetan.

Lehiaketaren oinarriak www.anboto.org webgunean

anboto 
komunikabideak

“Paziente euskalduna gaztelaniaz artatzen badugu, praxi oker bat egiten gabiltza”

Euskal Herriko osasungintza euskalduntzeko helburuz, Aintzat elkarteak sortu dute



Adrian Zelaia
Arieta-araunabeña
Mediku egoiliarra
Aintzat elkarteak kidea
Durango | 1991

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA
Azken urteetan sonatuak izan dira Medikuntza ikasleek unibertsitate amaieran eginiko hitzartzeak, euskaraz ikasteko arazoak salatzen. Dagoeneko lanean dabilen ikasle euskaltzale horietako bat da Adrian Zelaia durangarra. Gasteizko ospitaleetako mediku egoiliarra da, eta Aintzat elkarteak kide ere bai.

**Zergatik sortu duzue Aintzat elkar-
tea? Non du abiapuntua?**

Koordinazio espazio moduan jaio da. Alde batetik, EHUko medikuntzako ikasle asanbladatik gatoze-

nok gaude, karrera osoa euskaraz egin ezin genuenok. EHUko egituraren eredu oso zaharkitua eta espainiarra zen, eta osasungintzan antzeko egoera topatu dugu. Begira oposaketekin gertatu dena ere; unibertsitatean bezala, lehentasunezko kontratazioak egon dira, kasu askotan euskaraz ez zekitenak gainera. Ikasteko bakarrik ez, euskaraz lan egiteko ere zailtasunak ditugu, eta mugitzen hasi gara.

Zelan hasi zarete sareten?

Osasungintzako langileon artean hartu-eman bat egon daitekeela ikusi dugu, baina baita ikasleekin,

pazienteekin eta herri mugimenduekin ere. Osasungintza euskalduntzeko espazio eraginkor eta koordinatu bat sortzea da asmoa. Egia esan, Osakidetza barruan badago euskalduntzeko ildo bat, baina askotan itxurakeria dela uste dugu. Ez dago funtzionamendu klinikoa eta pazienteekiko hartu-eman euskalduntzeko borondate-rik. Osasun langileen formakuntza guztiz euskaldundu beharra dago; EHU, adibidez, euskarazko lerro bakarra egotea lortu beharra dago. Izan ere, ikasle elebidun horiek bakarrik dira gai paziente eleba-

karrak eta elebidunak artatzeko. Paziente euskalduna gaztelaniaz tratatzen badugu, praxi oker bat egiten dabilta, bere osasuna kaltezen gabiltza. Horrekiko arreta hobe izango da euskaraz bada.

Euskaraz lan egiteko ezintasunak aipatu dituzu. Baina, zein da egoera? Zein pauso eman daiteke hori aldatzen hasteko?

Ahozko komunikazioa kasu batzuetan euskaraz izan daiteke, baina idatzizkoa eta botere guneetako gaztelaniaz da guztiz. Osakidetza bezala, Osasunbidean eta iparraldeko sisteman ere, defektuz erdaraz sortzen dira programa guztiak. Langile euskalduna izan arren, gaztelaniaz lan egingo duela egintzat jotzen da. Lanean gabiltza

“

Euskara hegemoniko bihurtu gura dugu, betiere pazienteen hobe beharrez”

■

pazienteen txosten klinikoak, paziente euskaldunekiko komunikazioa, gure formazioa eta abar euskaraz izateko. Hori guztia koordinatu eta norabide estrategiko bat eman gura diogu. Euskara hegemoniko bihurtu gura dugu, betiere pazienteen hobe beharrez.

Nire kasuan, bizi osoan euskaraz jaso dut arreta lurretako osasun zentroan. Salbuespena al da?

Jende batek zortea izan du eta euskarazko arreta jaso ahal izan du. Hori egia da. Hala ere, gauza asko erdaraz izango ziren seguruenik, baita jardueren erregistroa ere. Lehen arretan, pertsona bategaz izango duzu hartu-eman, baina beste norabaitera bazoaz, Gurutzetara adibidez, hizkuntzarekiko jauzia nabaria izango da seguruenik. Hor, sarritan, ahozko komunikazioa ere ez da ahalbidetzen.

Ikasleek ikasturte amaieran jasoko dute autobusean ibiltzeko diru-laguntza

OTXANDIO • J.D.

Orain arte udaletxean eskuratzen ziren autobuserako bonuak, eta orduantxe aplikatzen zen laguntza. Baina urtea hasi denetik, beste konpainia batek kudeatzen du Durango-Gasteiz linea, La Union konpainiak, eta BAT txartelaren bidez funtzionatzen du. Txartel horretara norberak kargatzen du dirua. Beraz, diru-laguntza emateko modua aldatu du udalak, ordenantza berri baten bidez. Aurrerantzean, ikasleek ikasturte hasieran egin beharko du eskaria, eta amaieran jasoko du dagokion diru-laguntza. Aurtengo ikasturtea hasita dagoenez, ikasturte amaieran egin ahaliko da aurtengo ikasturteari dagokion laguntza eskaria.

Andaparaluzetan autobus geltokia eta zebrabidea egiteko proiektua onartu dute

OTXANDIO • J.D.

Andaparaluzetan autobus geltokia, zebrabidea eta gasolindegirako bidegorria egiteko proiektua onartu zuten joan zen asteeko udalbatzarrean. Lanak esleitu aurretik, lurraz eskuratzeko prozedura abiatu dute. Auzorako autobus zerbitzua udalaren eta Arabako Aldundiaren arteko akordioaren ondorioa da. Udalak geltokia egingo du eta Aldundiak ibilbideko geltokien artean sartuko du Andaparaluzetako.

Zaldibarko gaztetxearen 15. urteurreneko lehen ekintza egin dute

Martxoaren 6tik 9ra bitartean, gune autogestionatuaren urtemuga ospatuko dute ekintzaz beteriko asteburuan

ZALDIBAR • A.M.

Datorren martxoaren 6tik 9ra Zaldibarko gaztetxearen 15. urteurren ospakizuna dela-eta, ekintza sorta prestatzen dabilta bertako kideak. Lehenbizikoa, joan den asteburuan burutu zuten: 15 fruta arbola landatu zituzten gaztetxe atzeko zelaian, arbola bat gaztetxeak bizirik darman urte bakoitzeko. Landaketan, gaztetxeak izan dituen eraikine-

tatik igarotako belaunaldi guztiek parte hartu zuten, Geltoki zaharreko, Katueteetako eta egungo hiltegi zaharreko gaztetxeak kideek, hain zuzen ere.

Hamabost fruta arbola landatu zituzten, arbola bat gaztetxeak iraun duen urte bakoitzeko



Joan den asteburuan egin zuten ekintza gazteek.

Zazpi neurriko mozioa sartuko du Abadiñoko EH Bilduk martitzeneko bilkuran

ABADIÑO • A.M.
Hurrengo legealdirako, parte-hartze ordenantza bat sustatu gura du koalizio abertzaleak, herritarrei berba emateko asmoagaz. Horrela, "estrategikoak" diren gaietarako, herri galdeketak egitea proposatuko dute, adibidez. Batzorde edo bilkuretan parte hartzea erraztea ere eskatuko dute mozioan.

Iñaki Rekalde zinegotzia, EAJren zerrendako bigarrena

ABADIÑO • A.M.
2015eko udal hauteskundeetan bezala, Iñaki Rekalde bigarren joango da EAJren zerrendan. Legegintzaldi honetan Landa Garapen, Turismo eta Merkataritza zinegotzia izan da Rekalde. Ilusioz ekingo dio erronkari. "Ilusio handia daukat Abadiñori mesede egingo dioten akordioetara iristeko", adierazi du.

Martxoan hasiko dira Zelaieta oinezkoentzat egokitze obrak, Navarro alkatearen esanetan

Martitzenean esleitu zituzten obrak, eta tramite hori bete ostean, lanak ahalik eta azkarren hastea da udalaren helburua

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO
Jose Luis Navarro alkatearen esanetan, martxoan hasiko dituzte Zelaieta auzoko erdigunea berritzu eta oinezkoentzat bihurtzeko egingo dituzten lanak. Martitzenean esleitu zituzten obrak, eta "ahalik eta bizkorren" ekingo diete lanei. Trañapadurako zubiaren berriztapenagaz batera, hauxe da Navarroren azken legegintzaldiko proiektu nagusietako bat. Bederatzi

Alkatearen esanetan, bederatzi eta hamabi hilabete bitartean iraungo dute obrek

eta hamabi hile artean iraungo dute lanek, alkatearen esanetan. Zelaietako erdigunea oinezkoentzat izango da, eta obrek Txanporta plazan izango dute eragina, besteak beste; Zeletabe eta Iturritxo inguruak oinezkoentzat moldatuko dituzte, eta

baita Ferialekuaren beheko aldea ere. Iturritxotik autoz sartu ahal-ko da Zelaietara. Hain zuzen ere, semaforo berri bat ipini dute Iturritxo kalean, otsailean. "Zelaietako

obren aurrekontuan sartu ez arren, semaforoak obrak erraztuko ditu, eta obra osteko zirkulazioa ere bai", adierazi du Navarrok. Abenduko osoko bilkuran, proiektuak aurrera

egin zuen Airen eta EAJren aldeko botoekin. EH Bilduk, ostera, aurka bozkatu zuen, irisgarritasun eta segurtasun aldetik ez datozelako bat proiektuagaz.



Iturritxo kalean semaforo berria jarri dute, otsailean.



GLA. Zure hurrengo helmuga zeinahi ere den.

Eraman ezazu orain AMG Line opari*.

Bai hirirako, bai hiritik ihes egiteko diseinatuta. GLA-k egoera bakoitzean onena eskaintzen dizu. DYNAMIC SELECT sistemari esker, zure etorkizuneko planetarako egokitu dezakezu, gehien komeni zaizun gidatzeko era aukeratuz: ECO hiritik zehar, Confort bidaletarako, Individual errutinarako eta Sport adrenalina nahi duzunean. Prest al zaude?

*AMG Line opari. Adibidea GLA 200 d, 1.987€ balio duena, BEZ (%21) + matrikulazio-zerga (%4,75) barne. Baliozko eskaintza 2019/03/31 arte matrikulatutako ibilgailuentzat. Argazkiko modeloa agian ez dagokio eskaintzan agertutakoari. Informazio gehiago www.mercedes-benz.es-en

AMG Line ekipamendu berezia:

- AMG kit estetikoa
- ARTICO larruzko kirol-eserlekuak
- Larruzko 3 erradioko funtzio anitzeko kirol-bolantea
- LED High Performance auto-argiak
- 48,3 cm-ko AMG aleaziozko hagunak (19") eta 5 erradio



Mercedes-Benz

Aguinaga

Mercedes-Benz Kontzesionario Ofiziala
Borua Industrialdea, 2. Nabea 3. 48340 ZORNOTZA. Tel.: 94 630 17 47. www.aguinaga.mercedes-benz.es

Herriko ume zein gaztetxoentzat ludoteka bat zabaldu dute Axpeko udaletxe zaharrean

Axpen egin duten gunen berrian, atxondarrek jolastu, denbora pasatu, batzarrak egin zein ikasi egin ahal izango dute



Umeentzat tokia egin dute Axpen.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Herriko ume eta gaztetxoek Axpen egoteko eta jolasteko gunen bat izan dezaten, ludoteka bat zabaldu du Atxondoko Udalak. David Cobos alkateak jakinarazi duenez, egun ume asko dago Axpen, eta horiei leku bat jartzea "beharrezkoa" da. Udaletxe zaharrean atondu duten gunean, umeek hainbat gauza dituzte jolasteko: koltxonetak, jolasak eta mahaiak, besteak beste. Gai-

nera, erabilera anitza izango duen gunea ez da umeentzako gunea izango bakarrik. Gaztetxoek ere erabiltzeko aukera izango dute. Gunen umeekin jolasteko, gaztetxoak egoteko, ikasleek ikasteko, batzarrak egiteko eta abarretarako erabili ahalko da. "Arrazolan dagoen ludotekaren antzerakoa da, eta, beraz, atxondarrek hainbat gauzatarako erabili ahalko dute txoko berri hau", adierazi du alkateak.

Ordutegirik ez
Ludoteka berriaren ordutegiari dagokionez, honek ordutegi zehatzik ez duela izango jakinarazi du Cobosek.

Ludoteka erabili gura dutenek giltza eskatu eta eurek gura dutenean erabili ahalko dute

sek. Txoko hau erabili gura duten herritarrek giltza eskatu beharko dute eta eurek gura dutenean erabili ahalko dute. "Arrazolan sistema hori daukagu eta, egia esan, oso ondo dago. Herritarrek eurek gura dutenean joan daitezke: goizean, arratsaldean, eta baita gauean ere. Badakigu herriko ikasle batzuek iluntzean ikasteko aprobetxatzen dituztela gela hauek", amaitu du David Cobosek.

Igerilekuaren 20. urtemuga ospatzeko, ekintzak antolatu dituzte Berrizen

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR
20 urte igaro dira Berrizen igerilekua egin zutenetik, eta urtemuga hori ospatzeko, hainbat ekintza antolatzen dabilta Berrizburuko kiroldegian. Domestikarako, otsailak 24, gazte eta nagusientzako ekintzak antolatu dituzte. 10:00etan hasi eta 14:00ak arte, 14 eta 17 urte bitarteko gazteek igeri probak izango dituzte, eta nagusiek, Aqua Hiit Streetching jardura. Jarduerak doakoak izango dira, baina aurrez izena eman beharko da, kiroldegian.

Garain duatloia antolatuko dute lehenengoz, martxoaren 17rako

GARAI • MARKEL ONAINDIA
Garaiko Triatlloi Taldea ekimen berri bat antolatzen dabil. Izan ere, duatloia egingo dute lehenengoz herrian. Orain arte, triatlloiak eta mendi lasterketak egin izan dituzte. Martxoaren 17an izango da duatloia, hiru laguneko taldekako erreleboetan. 11:00etan mutilak irtengo dira, eta handik bost minutura, neskak. Ez da ohiko duatloia izango, partaideek zatika osatuko dutelako.



Udalak natur bidea atondu du.

Elorrioko trenbide zaharra eraberritu, eta bidea egin dute naturzaleentzat

Udalaren eskumenekoa den zatian bide gorria egin dute

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
1975ean azken trena Elorrioko geltokitik irten zenetik, bide horren zati bat ahaztuta egon da. Hori horrela, Elorrioko Udalak lanean ibili da trenbide zaharra naturbide bilakatzeko. Elorrioko Udalaren eskumenekoa den bide zatia bidegorri bilakatu dute dagoeneko, eta tunela argiztatu dute. Konpontzeko geratzen den zatia, berriz, Bizkaiko Diputazioaren eskumenekoa da. Hala ere, trenbideko zati osoa dago erabilgarri gaur egun. Hiru zoru mota daude guztira: bidegorria, asfaltoa eta pista. Gainera, egin dituzten azken lanei esker, Elorrioko autokarabana

gunetik irten eta Arrazolaraino oinez joateko aukera dute naturzaleek eta kirolzaleek.

1975ean irten zen azkenengo trena Elorriotik; ordutik, bidea ahaztuta egon da

Elorrioko autokarabana gunetik irten eta Arrazolaraino oinez joateko aukera dago

Haur eskoletan umeak dituzten familiek laguntzak eskatu ahal izango dituzte

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Elorrioko Udalak haur eskoletan dabilta urte bira arteko umeen familiei diru-laguntzak emango dizkie. Hau da, 2017an, 2018an eta 2019an jaiotako umeen gurasoei. Udaleko webgunean jarritako oharrean jakinarazi dutenez, diru-laguntzarik handienak matrikularen %30ekoak izango dira, eta txikiak, %7,5ekoak. Laguntza jasotzeko, errenta mugak eta familia bakoitzeko kide kopuruak izango dute zerikusia. Diru-laguntza jaso gura duten familia elorriarrek apirilaren 3a baino lehen egin beharko dute eskaria. Eskari orriak Herritarren Arretarako Zerbitzuan zein elorrio.eus webgunean daude eskuragarri.

**Mallabiko gazteek
sagardotegira irteera
antolatu dute
martxoaren 9rako**

MALLABIA • J.D.

Urteroko ohiturari eutsiz, Mallabiko gazteen taldeak sagardotegirako irteera antolatu du aurten ere. Martxoaren 9ko zapatuan izango da eta Altuna sagardotegia bisitatuko dute.

Izen-ematea Herriko eta Bastida tabernetan egin daiteke,

**Mallabiko Herriko eta
Bastida tabernetan egin
daiteke izan-ematea
sagardotegira joateko**

martxoaren 3ra arte. 10 euro izango da eta autobusa ordaintzeko erabiliko dute. Sagardotegian bakoitzak berea ordaindu beharko du.

Martxoaren 9an, 13:00etan, irtengo da autobusa Mallabitik. Sagardotegian bazkaldu eta arratsaldea han eman ostean, Hernanira joango dira. Gero, goizaldean irtengo da autobusa Hernanitik Mallabirantza, 03:00etan.

**Emozioak zelan
kudeatu erakutsiko
dute Izurtzako
nagusien lokalean**

IZURTZA • J.D.

Durangoko Merinaldeko Amonkomunazgoko Adinekoen Zerbitzuak hainbat ikastaro anto-

**Ikastaroa lau saiotan
banatu dute; martxoko
eguen arratsaldetan
eskainiko dituzte**

latzen ditu urtero Izurtzako nagusien lokalean, eta hurrengo martxoan hasiko da. Emozioak zelan kudeatu irakatsiko du arlo horretako aditu batek, eta, besteak beste, inteligentzia emozionalaren inguruko azalpenak emango ditu.

Ikastaroa lau saiotan banatuko dute: martxoaren 7an, 14an, 21ean eta 28an izango dira, hau da, martxoko eguen guztietan. 17:00etan hasi eta 18:30era arte iraungo dute saioek. Erdoitzako Ama elkarteko nagusien lokalean izango dira.



Marian Aramendi eta Florian Herara irailan etorri ziren Zornotzako Barnetegira eta ekainera arte egongo dira.

**"Hemen euskaraz bakarrik gabiltza
eta geure burua hizkuntza honetan
pentsatzera behartzen dugu"**

Ipar Euskal Herriko ikastetxe elebidunetan irakasle lanetan ibili ahal izateko, euskara ikastera etorri dira Marian Aramendi eta Florian Herara Zornotzako Barnetegira

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Azken hamarkadan, asko garatu da irakaskuntza elebiduna Ipar Euskal Herrian. Beraz, eskariari erantzuteko, euskara eta frantsesa dakizkiten irakasle elebidun gehiago behar dituzte. Irakaslegaiak hizkuntza bietan trebatzeko, Eskola Futura proiektua abiatu dute Euroeskualdearen barruko hainbat unibertsitatek, eta proiektu horren baitan Marian Aramendi (Urruña, 1996) eta Florian Herara (Azkaine, 1997) Zornotzako Barnetegian dau-

de ikasturte honetan, euren euskara maila hobetzeko helburuagaz.

Herarak Ekonomia eta Zuzenbide ikasketak burutu ditu unibertsitatean, eta Aramendik, berriaz, Hizkuntza Zientziak ikasi du. Lehen Hezkuntzako irakasle izan gura dute eta oposaketa prestatzera etorri dira.

Euskara maila desberdinagaz hasi ziren Barnetegian. Herarak dio etxean eta lagunekin "gutxitan" egiten duela euskaraz. "Eskolan ikasitakoa nekien", adierazi du. Aramendi, aldiz, euskaldun zaharra da. "Nire familiak euskaraz ere hitz egiten du eta beti izan ditut hizkuntza biak inguruan, euskara eta frantsesa", aipatu du.

Orain arte "oso esperientzia aberasgarria eta erakargarria" bizitzen ari direla dio Aramendik.

Izan ere, Barnetegiak eguneko 24 orduetan euskaraz bizitzeko aukera eskaintzen die. "Beti euskaraz ari gara geure artean eta baita hemen go jendearekin ere. Guretzat oso baliagarria da", esan du. Horrela, apurka-apurka, gero eta konfiantza handiagoa dute euskaraz. "Lotsa kentzeko balio izan digu. Ongi hitz egiten ez duena ez da ausartzen besteei egitera"

**"Lotsa kentzeko balio izan
digu. Ongi hitz egiten ez
duena ez da ausartzen
besteei egitera"**

aritzeko. "Batzueta ez nekien gauza batzuk euskaraz esaten eta frantsesera jotzen nuen, errazagoa zelako. Hemen, euskaraz bakarrik gabiltza eta geure burua hizkuntza honetan pentsatzera behartzen dugu. Egiten ditugu akatsak, baina horrela ikasten da", adierazi du.

Beraz, ahozkoitasuna dezente hobetzen dabilta. Eta, gainerakoan, zer kostatzen zaie gehien? "Gramatika osoa", dio Herarak, irribarrez. "Frantsesak eta euskarak ez dute loturarik. Hizkuntza biek ez dute logika bera erabiltzen. Nik nahiago dut frantsesa ahan-tzi eta euskarazko egiturak ikasten hutsetik ikasi, bestela nahastu egiten zara", azaldu du. "Euskaraz pentsatzen saiatzen gara", gehitu du Aramendik.

Herrian, euskaraz

Barnetegietatik irten eta herrietara doazenean, komunikatzeko beste zailtasun batez egiten dute bat: euskalkiak. "Batzueta, nolako lanak ulertzeko! Baina, azkenean, ulertzen da. Bizpahiru hitz hartu eta horrekin testuingurua ulertzen dugu", azaldu du.

Zornotzako kaleetan euskara entzuten dela diote. "Adibidez, kiroldegian denek euskaraz egiten dute, salbuespen batzuk kenduta. Iparraldean baino gehiago entzuten da", dio Herarak.

**Ardinesen hilketari lotuta, lagun
bat atxilotu dute Zornotzan**

ZORNOTZA • J.G. / J.D.

Martitzen goizean, Guardia Zibilak hiru gizon atxilotu zituen Francisco Javier Ardines Llanesko (Asturias, Espainia) zinegotziaren hilketaren inguruko polizia operazioaren barruan, eta atxiloketa bat Zornotzan izan zen, Zubipunteko etxe batean. Hiru atxiloketa horiez gain, laugarren pertsona bat

ere atxilotu zuten, Suitzan, kasu beraren inguruan. Francisco Javier Ardinesek 52 urte zituen, Llanesko Izquierda Unida alderdiko zinegotzia zen eta 2018ko abuztuaren hil zuten, Belmonte de Prías inguruan, bizileku zuen herrian. Harrezkero Guardia Zibilak egindako ikerketaren ondorio dira martitzenean izandako atxiloketa guztiak.



Zornotzan pertsona bat atxilotu zuten, Zubipunteko etxe batean.

Hareek denporak!**Athleticeko izarrak Durangon: Dani, Zubizarreta, Urtubi...**

Durangoko Kulturalaren men-deurreneko ospakizunen barruan, sona handiko futbol talderen baten kontrako partidua antolatu gura dute Tabiran. Athleticen edo antzerako talderen baten aurkakoa.

Ez litzateke Athletic Durangora datorren lehenengo aldia izango. 1985/86 denboraldian, Athleticen lagunarteko partidua bat jokatu zuen Tabiran. Argazkian ikusten denez, orduko izar

denak etorri ziren Durangora: Andoni Zubizarreta, Andoni Goikoetxea, Julio Salinas, Dani Ruiz-Bazan 'Dani', Ismael Urtubi, Estanislao Argote, Jesus Iñigo Liceranzu...

Ligako denboraldiari dago-kionez, urte lasaia izan zen durangarrentzat eta Durangoko Kulturalak seigarren tokian amaitu zuen urte hartako denboraldia, jokaturako partiduen erdiak irabazita.



ARGAZKIA: '1919-1994 CULTURAL BODAS DE DIAMANTE' LIBURUTIK.

Politikan

Julian
Rios Santiago
SQ-2D

**Gora Durango eta durangarrak!**

Durangori buruz gauza asko esan daitezke. Batzuk bertan jaioak gara. Beste batzuk, berriak, gero etorri ziren. Baina denok nahi dugu Durangon bizi, zahartu eta gure seme-alabak hazten ikusi. Izan ere, toki zoragarrian gaude. Benetan eder-rra den bailaran, historia eta bizipenez beteriko alde zaharra duena. Eta zer esan dezakegu bertako jendeaz? Ba, betiere atseginak, adeitsuak, solidarioak eta abegitsuak direla.

Hainbeste gustatzen zaigunez Durango eta beti gure herriarentzat onena nahi dugunez, bertako herritarrak betebeharrak eta eskubideen zaindari bilakatu gara. Durangarrek biztanle hutsak izateaz haratago doan zeregina betetzen dute: errekan egindako isurketak salatzen dituzte eta baita berogailua martxan dagoela anbulategiko leihoak irekita daudenean; udaltzainei deitzen diete Zabalarra, Landako edota Ikastolako ateak itxita aurkitzen dituztenean; 24 orduko pediatria zerbitzua aldarrikatzen dute; airearen kalitate txarra salatzen dute; sinadurak jasotzen dituzte trenbideko lurren inguruko galdeketa egiteko; haur eta gazteentzako aisialdi aukerak eskatzen dituzte; auzoetako azpiegitura zaharkitua berri-berri-berri egiten dituzte; gure merkatu plaza historikoaren eta Ezkurdiko frontoia-aren egoera tamalgarria salatzen dute... EAJk eta PSEk gidatutako gobernuaren utzikariak eta lan faltak zerbait lortu badu, durangarrak mugiaraztea izan da, haien kudeaketaren hutsuneak betetzen dituztelarik.

Durangok zerbait hobea merezi du eta bere herritarrei esker lortuko du. Denon artean egin dugu.

Gora durangarrak!

Durangaldea asteen**'Merkatari' aplikazioa deskargatzen dutenen artean sariak banatuko dituzte**

Abadiño I Abadiñoko merkataritza txikiaren egoera hobetu eta herritarrak dendetara gerturatzeko asmoz, udalak eta Abadiñoko Merkataritza Elkarteak 'Merkatari' aplikazioa kaleratu zuten abenduan. Aplikazioari bultzada bat emateko asmoz, astelehenero zozketak egingo dituzte, martxoaren 25era bitartean. Aplikazioa deskargatzen dutenen artean egingo dituzte zozketak, eta irabazleek bonuak jasoko dituzte, herriko dendetan gastatzeko.

Aurrekontuetako 50.000 eurogaz zer egin erabakiko dute Iurretan, hilaren 26an

Iurretan I Iurretako Udalak foro parte-hartzailearen bidez erabakiko du 50.000 euroko diru-atala zein proiektutara bideratu. Azken asteetan, herritarrek euren proposamenak aurkeztu dituzte, eta datorren martitzenean, otsailak 26, proiektuak bozkatzeko aukera izango dute. Aurrekontu parte-hartzaileen inguruko baztarrak 19:00etan izango da, Ibarretxe Kultur Etxean.

Durangoko Udalaren Arreta Zerbitzuak ia 60.000 tramite burutu ditu 2018an

Durango I 2017an baino %3,7 tramite gehiago egin zituen Durangoko Herritarren Arreta Zerbitzuak. 2018an 60.000 tramite izan ziren, eta horietatik 40.000 inguru aurrez-aurrekoak izan ziren; 18.600 inguru kuxazainez egin ziren. Bestalde, martxoan erreklamazioak eta iradokizunak azkarrago kudeatuko dituen sistema berria abiatuko dutela jakinarazi dute.

**Luis Ibañez margolariak udaletxearen erreplika bat oparitu dio Durangoko Udalari**

Durango I Luis Ibañez margolariak udaletxearen erreplika bat oparitu dio Durangoko Udalari. Ibañezek 750 lanordu behar izan ditu lana amaitzeko. Margolariaren berbetan, zailtasunik handiena eraikinen xehetasunak izan dira. Bestalde, lana ahalik eta erreale-ri izateko, arkitekto baten laguntza eduki du Ibañezek.

Herritarrek Ibañezen lana ikusteko aukera izango dute; udaletxe-ko sarreran egongo da ikusgai.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Marga

Ehunak - Mozorroak - Baserritar jantziak

**DENDAN DAUDEN MOZORROAK
%20KO DESKONTUAREKIN**

Montebideo, 18 - Durango - Tel.: 946 030 458

OLA
JAUREGI

Hotel-Jatetxea
Ongi etorri!

Kurutziaga kalea, 52 Durango
Tel.: 946 200 864
info@olajauregi.com • www.olajauregi.com



Osasun gida

anboto

Ginekologia
PSE: 93/18

mam ginekologia zentroa

Mikeldi 13, 48200 - DURANGO
T 946 05 53 04
info@mamginekologiadurango.com
www.mamginekologiadurango.com

HITZORDUA ESKATU
674 322 360

Fisioterapia
PSE: 119/13

Zaindus

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Fisioterapia
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Fisioterapia
PSE: 155/17

HOBETU
Fisioterapia & Podologia

info@hobetu.es
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2
P.K./ 48230 Elorrio
www.hobetu.es

Podologia
PSE: 148/13

**PAUSOZ PAUSO
PODOLOGIA KLINIKA**

GOIATZ MURUA
Podologia
AINHOA ELORZA
Podologia
NEREA RODRIGUEZ
Podologia

Kiropodia, onikopatia,
alterazio dermatologikoak
eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 behe DURANGO
946 203 630

Odontologia
PSE: 145/13

clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{Muruetatorre, 2C blokea, behe}
DURANGO
Tel.: 946 819 951
Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

Odontologia
PSE: 112/13

J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

Estetika
PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaDurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa
(prezio bereziak), barizeak... Adinaren
kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Psikologia
PSE: 62/11

JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

Optometria
PSE: 162/13

keinu optometria zentroa

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

Pedagogia
PSE: 63/63

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO ZENTROA**
Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



'Los Excursionistas'

FILM LABURRA
DURANGO :: Otsailak 22

San Agustin kulturgunean aurkeztuko dute film laburra

Jose Luis Martinez Antoñanak zuzendutako *Los excursionistas* film laburra aurkeztuko dute, gaur, San Agustin kulturgunean. Joan zen abenduan grabatu zuen film laburra Durangaldeko Artista Elkarteke zuzendariak. Filma 19:00etan emango dute.

Otsailaren 22an

BERRIZ musika
Kontzertuak: The North + Etazer + Zain + Hyssopus, 22:30ean, Hiltegixe gaztetxean. 20. urteurrena.

DURANGO film laburra
'Los excursionistas' film laburra (Jose Luis Martinez Antoñana), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

ELORRIO antzerkia
'Neanderthal' (David Vento & CIA), 20:30ean, Arriola antzokian.

IURRETA ipuinak
Izaskun Mujika ipuin kontalaria, 17:30ean, 3-4 urte bitartekoentzat (nagusi batez lagundurik). Bost urtetik gorakoentzat, 18:00etan. Herri bibliotekan.

IURRETA ipuina
'Matamala' (Pablo Albo), 18:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Helduentzat.

ZALDIBAR batzarra
Gizonen batzar irekia: umeen zaintza eta jantokiaren antolakuntza, 18:00etan, Liburutegi Zaharrean.

ZORNOTZA antzerkia
'Babesleku arrotzak eta animalia bakartien hotsak' (RUBIK Theater), 20:15ean, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 23an

BERRIZ ipuinak
Ipuin txokoa: 'Maleta kontuak' (Maider Galarza), 12:15ean, Berrizko Kultur Etxean.

Otsailaren 24an

ABADIÑO deia
Txitxiburduntzia, 10:00etatik 14:00etara, Zelaieta eskolako aterpean. Guraso Elkarteak antolatuta.



Txitxiburduntzi egitera deitu dute Durangaldeko hainbat herritan, otsailaren 24an

DURANGO antzerkia
'Babesleku arrotzak eta animalia bakartien hotsak' (RUBIK Theater), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO deia
Txitxiburduntzia. Larrinagatxutik Santa Agedaraino mendi ibilbidea Andra Marian hasita, 08:30ean. Txitxiburduntzia, 10:00etan Santa Agedan. Alpino Tabira mendizale taldeak antolatuta.

ELORRIO deia
Txitxiburduntzi Eguna.

Ordubeteko ibilaldia, plazan hasita, 10:00etan. Gero, San Josen, Txitxiburduntzia. Lau Eskola guraso elkarteak antolatuta

IURRETA deia
Basokoipetsu Eguna, Aitte San Migel jai batzordeak antolatuta. Aita San Migel plazan, 17:30ean.

IZURTZA deia
Txitxiburduntzi Eguna, eguerdian, plazan.

ZALDIBAR deia
Mendi irteera: Zaldibar-Arietzu-Goierri, 09:30ean, udaletxetik hasita. **Txitxi-burruntzia**, 11:00etan, Goierriin. Zaldua mendi taldeak eta udalak antolatuta.

Otsailaren 26an

IURRETA deia
Odol-ematea, 16:30etik 21:00etara, Maspe kalean. Emoixu odol elkarteak.

IURRETA tailerra
Adinkeria-Emakumeen zaharralduntze tailerra, 17:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

IURRETA batzarra
Aurrekontu parte-hartzaileak (2. saioa), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.



Berriz oholtzara

KONTZERTUA
BERRIZ :: Otsailak 22

Berrizko Hiltegixe gazte-txearen 20. urteurrena ospatzeko, herriko hainbat musika talde oholtzara igoko dira berriro. Kontzertu berezia eskainiko dute, gaur, Hyssopus, Etazer, Zain eta The North taldeek.

ANBOTOkO agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Osasuntsu jateko aholkuak

Berrizen

IKASTAROA • *Gosari eta merienda osasuntsuak: aholku eta errezetak* izenburuagaz ikastaroa eskainiko du Zigor Iturrietak Berrizko Kultur Etxean. Ikastaro bi eskainiko ditu: bata 6 eta 10 urte arteko umeentzat, eta bestea, 11-16 urtekoentzat. Martxoaren 4an izango dira eta otsailaren 26ra arte eman daiteke izena.



Ekitaldi sorta dakar asteburuak, M8-aren iragarle

MARTXOAK 8 | Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekintza antolatu dituzte Durangaldeko hainbat udalek eta mugimendu feministak. Asteburu honetan hasiko dira ekitaldiak zenbait herritan. Abadiñon, Elorrion eta Zaldibarren, adibidez.

Autodefentsa feminista tailerra eta *Mari eta gaileta fabrika* antzezlan antolatu dituzte Abadiñon, eta *Entre Fridas y Chavelas* erakusketa ere zabalduko dute. Elorrion, bestalde, hitzaldia eskainiko du Leire Milikuak: *Elorrioko landa-eremuko emakumeak: gaur eguneko egoera*. Zaldibarren, *Ligoteo sanao* izenburuagaz tailerra zuzenduko du Desirak taldeak, gaur. Zapatuan, bestalde, Zaldibarko I. Nesken Frontenis Txapelketa jokatu dute, Olazar frontoian, 10:00etan hasita.

Abadiño

‘Mari eta gaileta fabrika’ obra, otsailaren 22an, 18:00etan. Zelaieta eskolako gimnasioan. 7-14 urteko umei eta familiei zuzenduta.

Autodefentsa feminista tailerra, otsailaren 23an, Txanporta kultur etxean (10:00-14:00/15:00-19:00).

‘Entre Fridas y Chavelas’ (Miriam Rodríguez) erakusketaren inaugurazioa, otsailaren 28an, 19:00etan, Errota kultur etxean.

Elorrio

Hitzaldia: ‘Elorrioko landa-eremuko emakumeak: gaur eguneko egoera’, otsailaren 22an, 18:30ean, Iturri kultur etxean. **Hizlaria: Leire Milikua**

Zaldibar

Tailerra: ‘Ligoteo sanao?’ (Desirak), otsailaren 22an, 19:00etan, Gaztelekuan (12-18 urte).

Zaldibarko I. Nesken Frontenis Txapelketa, otsailaren 23an.

Otsailaren 27an

BERRIZ **film dokumentala** **‘Les Affamés’**, 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

Otsailaren 28an

ELORRIO **erakusketa** **‘Woman’**. Maria Otxandiano. Argazkiak. Iturri kultur etxean, 09:30etik 21:00etara.

DURANGO **musika** **Dj Sonidero galerna**. 22:00etan, Txoria Nuen Maite tabernan. Jan and Jai egitaraua.

Martxoaren 1ean

ZORNOTZA **antzerkia** **‘7ak bat’ (ATX Teatro)**, 20:15ean, Zornotza Aretoan.

IURRETA **irteera** **Donostia eta Aginagara irteera**, martxoaren 9an. Anderebidek antolatuta. Izena emateko, 94 681 81 76 telefonora deituta.

Martxoaren 1etik 15era

ABADIÑO **erakusketa** **‘San Blas 2019’**. Errota Kultur Etxean. Aste barruan, 09:00etatik 20:00etara eta zapatuan 10:00etatik 14:00etara.

Martxoaren 3ra arte

DURANGO **erakusketa** **‘Bay Sala (1913-1995)’**. Durangoko Arte eta Historia museoa.

Martxoaren 4an

BERRIZ **ikastaroa** **‘Gosari eta merienda osasuntsuak: aholkuak eta errezetak’**, Zigor Iturrietaren eskutik. 16:00etatik 17:30era (6-10 urtekoak) eta 17:30etik 19:00etara (11-16 urtekoak), Berrizko Kultur Etxean. Euskaraz. Izena emateko, otsailaren 26ra arte, kultur etxean bertan, euskara@berriz.eus e-posta erabili edo 94 682 40 36 telefonora deituta. 5 euro.

Martxoaren 8tik 10era

DURANGALDEA **irteera** **Eski irteera Formigalera**. Izena emateko, martxoaren 1era arte: alluitzmenditaldea@gmail.com. Abadiñoko Alluitz eta Iurretako Zaldai mendi taldeek antolatuta.

Otsailean eta martxoan

DURANGO **erakusketa** **‘ERRegistruek. Buruek, zuluak eta spilluek’**. Amaia Asategi Iturrালের ইনা. Arteka liburu-dendan.

Otsaileko agenda



22

“IPUIN KONTALARIAK”
IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA
17:30 3-4 urte bitartekoak, heldu batez lagundurik
18:00 5 urtetik gorakoak
19:00 Helduen ipuin kontalaria “Matamala” Pablo Albo

24

“AITTE SAN MIGEL BATZORDEA”
BASOKOIPETSU EGUNA
17:30 Txitxiburduntzia

26

“EMOIXU ODOL ELKARTEA”
16:30-21:00 Odol-ematea (Maspe 6)
GIZARTE ONGIZATE SAILA
17:00 “Adinkeria-Emakumeen zaharralduntze tailerra” Ibarretxe Kultur Etxea
19:00 Aurrekontu parte-hartzaileak, 2.saioa

27

“IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA”
10:00 XL. Irakurketa kluba

Zine- ma

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Green Book**

barikua 22: 22:00

domeka 24: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **Como entrenar a tu dragón 3**

barikua 22: 19:30/22:00

zapatua 23: 17:30/19:00/22:30

domeka 24: 17:30/19:00/21:30

astelehena 25: 18:30/21:00

martitzena 26: 20:00

eguzatena 27: 20:00

• **Una cuestión de género**

barikua 22: 19:30/22:00

zapatua 23: 19:45/22:30

domeka 24: 19:00/21:30

astelehena 25: 18:30/21:00

martitzena 26: 20:00

eguzatena 27: 20:00

• **Green Book**

barikua 22: 19:30/22:00

zapatua 23: 19:00/22:30

domeka 24: 20:00

astelehena 25: 18:30/21:00

martitzena 26: 20:00

eguzatena 27: 20:00

• **La Lego película 2**

zapatua 23: 16:45 (euskaraz)

domeka 24: 16:30 (euskaraz)

:: Elorrio ARRIOLA

• **Blues de la calle Beale**

zapatua 23: 22:00

domeka 24: 20:00

astelehena 25: 20:00

• **Mi vecino Totoro**

domeka 24: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **Perdiendo el este**

zapatua 23: 19:30/22:00

domeka 24: 20:00

astelehena 25: 20:15

• **La Lego película 2**

zapatua 23: 17:00

domeka 24: 17:00

“Gorputzaren bitartez adieraztea errazagoa da guretzat. Eta hori nola egin? Gu geu sentimendu bihurtzen”

Uribarri Atxotegi eta Ane Gabilondo durangarrek bertsoa, dantza eta musika uztartzen dituen 'Etixerako giltzak' kultur emanaldiko protagonistak dira



Ane Gabilondo Loizate
Durango | 1995

Uribarri Atxotegi
Onandia
Durango | 1996

gara gu. Kontatzen gabiltzana ez dugu bizi. Errealitate bat fikzioan irudikatzen dugunez, errespetu handiz gabiltza lanean. Beti.

Emanaldiko protagonistak zaretela esan daiteke.

U.A.: Narratzailearen papera dauka-gu eta horrek erantzukizun handia du. Sorkuntza prozesu propioa izan da eta lan handia da hori. Obran, kide bi gehiago besterik ez gara.

A.G.: Gu ez gara protagonistak. Momentu bakoitzeko sentimenduek, egoerek, daukate garrantzia. Pertsona asko edota bakarra izan gaitzke. Sentimendu asko edota bakarra. Bi pertsona egongo dira agertoki gainean, baina ez dira Uribarri eta Ane izango. Ipuin bat baino korapilatsuagoa den zerbait azaltzen saiatuko gara.

Nolakoa da Gotzon Barandiaranen gidaritzapean lan egitea?

U.A.: Koordinazio lanak egin ditu Gotzonek. Arriskatzera animatu gaitu, istorioa muturrera eramatera. Oso garrantzitsua izan da hori. Askatasun handia eman digu hasieratik. Gure kontura ibili gara, musikak ere guk aukeratu ditugu eta guk egin ditugu koreografiak. Askatzailea izan da oso.

A.G.: Berak dioen moduan: “Jendeak negar egin behar bada, iluntasunean sentitu behar bada, ba, aurrera”. Azken finean, herri hau erresistentzian murgilduta egon da. Gogor egoten eta mantentzen. Espazio gutxi eman diogu gertatu dena sentitzeari. Guk gura dugun sakontasuneraino joateko aukera izan dugu. Horrek sentimendu ilunagoak eragiten baditu, aurrera. **Zergatik joan behar da jendea 'Etixerako giltzak' ikustera?**

A.G.: Gehien sentiaraztea eragin ahal digun erreminta da artea. Interesgarriena gazteak joatea da, errealitate berdina beste modu batean salatu edota ikustarazi ahal dugula ikusteko. Betiko moldeak aldatzeko aukera da, potentziala eta aukerak ditugu.

Gaurko emanaldia ikusteko beste aukerarik egongo da?

U.A.: Ikusteko dago zelako harrera izango dugun. Talde handia gara. Baina posiblea da. Primeran funtzionatzea espero dugu.

DANTZA • KAROLINA SUAREZ

'Etixerako giltzak' 40 Minutu Rock-eko sentikaria plazaratuko dute gaur, 22:00etan, Landako Gunean. Atxotegik eta Gabilondok gogotsu hartu dute erronka, dantzari profesionalak izan ez arren. Mikel Urdangarin, Miren Amuriza eta Nerea Ibarzabal ariko dira euregaz batera.

Zer da 'Etixerako giltzak' ?

Ane Gabilondo: 40 minutuko sentikaria da. Hartutako erabaki batetik aurrera, pertsona baten bizipen guztiak azalduko dituen lana. Sentikaria diogu, istorioak sentimenduetatik abiatuta kontatuko ditugulako.

Uribarri Atxotegi: Hainbat artistaren laguntzagaz, sentimenduak mugimendu bihurtu ditugu. Dantzaz aparte, musika eta letrak oso presente egongo dira.

Sentimenduak aipatu dituzue.

U.A.: Bidaia bat da. Euskal preso politiko baten ibilbidea kontatzen duen bidaia. Lau multzo ditu: eraba-

kia, klandestinitatea, kartzela eta etxera buelta. Orduan, ez genuen bloke bakoitzeko sentimendu bat islatu gura. Etsipena dago kartzelan, eta babesa sentitzen duzunean, maitasuna, adibidez.

A.G.: Hala ere, dantza sortzerako orduan, sentimendu bakarretik abiatu gara atal bakoitzeko.

Isolamendua, atsekabea... agertoki gainean islatzea korapilatsua dirudi.

A.G.: Zaila da. Guk mugimenduak kontrolatzen ditugu, ez gara aktoreak. Gorputzaren bitartez adie-

“**Kontatzen gabiltzana ez dugu bizi. Errealitatea fikzioan irudikatzen dugunez, errespetu handiz gabiltza lanean**”

raztea errazagoa da guretzat. Eta hori nola egin? Gu geu sentimendu bihurtzen.

U.A.: Inprobisazioa oso garrantzitsua izan da. Guztia larregi pentsatu beharrean, mugimendu batzuk hartu ditugu gidalerro. Irten zitezkeen gauzak lanean barneratzeko. **Bizipen horiek publikoak ere sentitzea al da asmoa?**

A.G.: Hori da helburu nagusia. Lortuz gero, ondo egindako lana izango da. Eta gertatuko da. Preso baten bizitza da, azken batean. Errusiar mendi bat.

U.A.: Ez da zertan modu berdinean izan. Urduritasuna eduki genezake eta publikoak beste zerbait sentitu. Kontua publikoaren barruan zerbait eragitea da.

Zer suposatzen du gai honen inguruko sorkuntza lan bat egiteak?

U.A.: Fikziozko obra bat da hau guretzat, errealitate bat asko eta askorentzat; hori ezin dugu ahaztu.

A.G.: Hau guztia muntatzeko, dokumentazio lan handia egin da.

Gotzon Barandiaranek bibliografia handia bidali zigun; preso eta erbesteratuek idatzitako poemak, elkarriketak... Lekukotza asko ezagutzeko aukera izan dugu.

Hortaz, erronka handia izan da.

A.G.: Bion izenean egingo dut berba. Dantzari dagokionez, inoiz egin dugun ariketarik handiena da hau. Sekulako erronka.

U.A.: Dantzari lana baino gehiago izan da. Sormen lana egin dugu. Erantzunbehar handia da hori.

A.G.: Eta errespetua. Interpretateak

“**Herri hau erresistentzian murgilduta egon da. Espazio gutxi eman diogu gertatu dena sentitzeari**”

'Babesleku arrotzak eta animalia bakartien hotsak' ikusteko aukera bikoitza asteburuan

Zornotza Aretoan gaur eskainiko dute antzezlan, otsailak 22, 20:15ean; domekan, hilaren 24an, Durangoko San Agustin kulturgunean egongo da ikusgai, 19:00etan; Zubi ekimenaren laguntza duen bi proiektuetako bat da

ANTZERKIA • A.M.

Gaur estreinatuko da *Babesleku arrotzak eta animalia bakartien hotsak* Rubik Theater konpainiaren antzezlan, Zornotza Aretoan. Zubi ekimenaren laugarren deialdiko lanetako bat da obra hau, hain zuzen ere. Mar Augé antropologo frantziarrak sorturiko ez-leku kontzeptuan oinarritutako espazioen bidez, hausnarketarako gonbidapena egiten dute ordubeteko obran. "Zer da iragankorra, beraz, migratzaile baten bidaia etengabea? Dena iragankorra bada, inguruan duen oro ezezagun, inguruan duen oro ez-leku, inguruan duen oro arrotza izango da. Migratzaileak ez-lekuetan lekutzen dira, ikusezin bihurtu arte", egin dute gonbidapena.

Estitxu Zalduak eta Juanjo Herrero osatzen dute Rubik konpainia, eta eurak arduratu dira ideia garatzeaz, dramaturgiak eta aktore lanetaz. Zuzendaritzaz ere eurak arduratu dira, Ekaitz Unai Gonzalezen laguntzagaz. Zaldua

eta Herrero Bartzelonako Institut del Teatren lizentziatuak dira.

Zubi ekimenaren baitan

Euskal antzerki sorkuntza profesionalari buruzko kezkak bultzatuta sortu zuten hainbat erakundek Zubi ekimena, eta deialdi

Mar Augé antropologo frantziarrak sorturiko ez-leku kontzeptuan oinarritzen da obra

honen bidez sortu da *Babesleku arrotzak eta animalia bakartien hotsak*. Besteak beste, Durangoko San Agustin Kulturgunek, Zornotza Aretoak eta Elorrioko Arriola antzokiak parte hartu dute proiektuaren sorreran. Zubiren bultzada, aholkularitza artistikoan eta administratiboan, ekoizpenerako diru ekarpenean eta areto bakoitzeko emanaldi baten kontratazioan gauzatuko da.



Estitxu Zaldua eta Juanjo Herrero dira protagonistak.

Luis Caok klown ikastaroa eskainiko du martxoan Elorrioko Ateneo aretoan

Ikastaroa martxoaren 14an, 15ean, 16an eta 17an izango da; saioak goizean eta arratsaldean egingo dituzte

ANTZERKIA • A.M.

Yllana konpainia entzutetsuko kide batek Bizkaian emango duen lehenbiziko tailerra izango da. Luis Caok hamarkada bi baino gehiagoko ibilbidea du antzerkigintzan, telebistan eta zinean. Keinuketa eta inprobisazioa landuko dituzte, batez ere, ikastaroan. Besteak beste, Marcel Marceau, Jackes Lecoq eta Ives Da-

genais maisuekin trebatu da Cao Clown alorrean. Izena emateko, 673368611 telefonora deitu behar da, edota aitciber@hotmail.com helbidera idatzi.

Martxoaren 14an eta 15ean, iluntzian izango da ikastaroa, 19:00etatik 22:00etara. 16an eta 17an, oster, goizean, 11:00-14:00 bitartean. 160 eurokoa da izenematea.

Gai librean

Garazi Mugarza Markina Erizaina



Bizimina II

Duela zortzi bat urte garbi adierazi zuen ez zuela kirofanora sartu nahi, bere historia klinikoan idatzita dago ordutik. Gaur 89 urte ditu eta "konbentzitu" zutelako kirurgiako itxarote-zerrendan dago bere izena. *Aquí ya no mando nada* esanaz agurtu gintuen larrialdi zerbitzuetan. Semeak zeraman etxera bere gurgildun aulkian, eta guri begira barrez errepikatu zuen amak esandakoa.

Neure onetik ateratzen naute kontu hauek eta asteak daramatzat emakume hura burutik kendu ezinda. Ordu-ra arte ez nuen ezagutu heriotza horren era positiboan asimilatuta daukan inor. Izandakoaz harro eta bizitzaz aseta, azken kafesne bat hartu gurako luke bakarrik.

Egungo gizartearen hemengo eta oraingo bizitzaren martxak desafiatzen du egungo adinekoa. Ezinbestean familia, gaitasunak eta gerra galdu dituen adinekoari arrazoiak eta aukera ere kentzen dizkio. Norentzako da eroso honezkero-ez-denguztiaz jabetuta bizitzea? Ahalegindu galeren ariketa egiten (eta galerez ari naizenean, pixoihalaz ari naiz, adibidez).

Euren autonomia aldarrikapenak dira eskuz idatzitako telefono zenbakien agendak eta bankuko leihatilan dirua ateratzeko sortutako ilarak. Benetako lezio bat ematen ari zaizkigu etengabe bizimodu zoriontsu eta libre bat defendatzen dugunoi, ze ez diegu uzten euren eta euren dagokiena erabakitzen. Ahoa orainez betetzen zaigu eta burua etorkizunetz galtzen.

Gu ez gara nor gure beldurrak inoren erabaki bihurtzeko.



Luis Cao.

hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#gomendioak




HELDUENTZAT
UR BIREN ARTEAN
Patxi Iturregi
2019



UME ETA
GAZTEENTZAT
SUPER PATATA
Artur Laperla
2019



MUSIKA
ZORIONAK NIRE
PARTEZ
NIRETZAKO
Txapelunk
2018



Kalebarria 7 - Durango (Bizkaia) • Tel.: 94 407 39 88

Milaka musika zalek bat egingo dute 40 Minutu Rock elkartasun jaialdiaren eskaintza anitzagaz

Goizean, 10:30ean hasita, hamasei musika taldek kontzertuak eskainiko dituzte Landako Gunean eta karpako oholtzetan



Milaka musikazale biltzen ditu urtero 40 Minutu Rock jaialdiak Landako Gunean.

MUSIKA • A.M.

Barikuan jarriko da martxan 40 Minutu Rock elkartasun jaialdiaren bosgarren edizioa. Urteurrena ospatzeko, egun biko jaialdia izango da aurtengoa. Barikuan, otsailak 22, kultur emanaldi bi egongo dira Landako Gunean.

Hurrengo egunean, 23an, ohiko musika jaialdiaren txanda izango da. Hesian talde ezagunaren kontzertuagaz abiatuko da, 10:30ean, eta gaueko ordu txikiak arte iraungo du jaiak. Bosgarren edizio honetan, hainbat musika doinuak osatzen dute kartela, rock doinuak albo batera utzi barik. Horren adibide, Brigade Loco (Rotten XIII nafarren partez joko dute, Javi baxu-jotzailea lan istripuan zendu ostean), eta Rude Prideren kontzertu indartsuak izango dira. Nøgen eta Huntza talde gazteek doinu dantzagariagoak eskainiko dituzte, eta Zea Mays eta Parabellum taldeek, oster, doinu klasikoak zaleak

asetuko dituzte. Bad Sound, Eze-taerre, eta Ira taldeek gurean gero eta ezagunagoak egiten ari diren rapa eta dance halla jorrazten dituzte. Karpa txikian ere, hip hop doinuak (Gorpuzkingz eta Suaia) eta musika jartzaileak izango dira protagonista. Festak goia joko du Esne beltza eta Zirkinik Bez taldeen emanaldi dantzagarriekin. Ohi bezala, milaka musikazalek Landako Gunea betetzea espero da. Geratzen diren sarrerak 20 euroan salduko dituzte, zapatuan bertan.

Geratzen diren sarrerak zapatuan bertan erosi ahalko dira, Landako Gunean, 20 euroan

Barikuan ere bai

Publiko guztiengana heltzeko asmoz, kultur ekitaldi bi antolatuko dituzte gaurko: Elkartasun Dantzaldia Pirritx, Porrotx eta Marimototsegaz eta Etxerako Giltzak (protagonistek elkarriketa 16. orrialdean). Lehenengo 18:30ean izango da, eta Etxerako Giltzak, 22:00etan. Landako Gunean izango dira biak.

Berri Txarrak Plateruenean joko dituen kontzertuetarako lau sarrera zozkatuko ditu ANBOTOk

Martxoaren 9an eta 10ean izango dira emanaldiak, eta sarrera guztiak salduta daude

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Berri Txarrak taldeak martxoaren 9an eta 10ean Durangoko Plateruena kultur gunean eskainiko dituen kontzertuetarako sarrera bikoitz bi zozkatuko ditu ANBOTOk. Sarrera horietako bi Anbotoren Lagunen artean zozkatuko dira. Beste biak, oster, Facebook sare sozialeko jarraitzaileen artean. ANBOToren profilari jarraitzeaz gainera, zozketa elkarbanatu beharko du, eta kontzertura joatekoa den laguna etiketatu beharko luke iruzkinean.

Zozketaren irabazleak martxoaren 1ean iragarriko dira. Zozketan parte hartzeko, otsailaren 28ra arte dago aukera.

Datozen hilabeteetarako, 40 kontzertu baino gehiago iragarri du musika talde ezagunak

Ikusi Arte Tour biraren baitan, Beude izeneko kontzertu sorta eskaintzen ari da Berri Txarrak taldea

Euskal Herriko areto eta agertoki esanguratsuenetako batzuetan, tartean Plateruenean eskainiko dituen biak. Sarrera guztiak ordu bitan agortu ziren, eta goizeko lehen orduetatik ilarak egon ziren.

40 kontzertu

Berri Txarrak taldeak etenaldi mugagabea egingo duela iragarri zuen iaz. Agur biran, 40 kontzertu baino gehiago iragarri dituzte. Azaroaren 23an eskainiko dute azkeneko emanaldia, Iruñeko Navarra Arenan.



Berri Txarrak.

BERRI TXARRAK 2 SARRERA BIKOITZEN ZOKETA

Platerueneko kontzerturako

ANBOTOREN LAGUNen artean bi sarrera

Egin zaitez ANBOToren lagun!

30€ urtean	Opariak eta abantailak edukiko dituzu	ANBOToren proiektua babestuko duzu
---------------	---------------------------------------	------------------------------------

ANBOTOren Facebookeko jarraitzaileen artean bi sarrera

Jarraitu Anboto komunikabideak orrialdea	Albistearen posteko iruzkinetan, etiketatu lagun bat	Elkarbanatu albistearen post hori
--	--	-----------------------------------



**Mirari Aldekoa
Martinez**
Tabirako saskibalo
taldeko jokalaria
lurreta | 1995

“Partiduak aurrera joan ahala, gero eta gusturago sentitu naiz taldeko joko antolatzaile postuan”

Mirari Aldekoaren postu naturala eskolta da, baina, lesioen ondorioz, joko antolatzaile lanetan aritzea egokitu zaio sarritan. Hasieran ez zuen bere burua horretan ikusten, baina, apurka-apurka, gero eta erosoago sentitu da

SASKIBALOIA • JOSEBA DERTEANO

Erreleboen denboraldia da Tabirako kon. Batetik, sei urtez taldeko entrenatzaile izan den Jesus de Vicentek utzi eta Antxon Imazek ordezkatu du. Bestetik, jokalaria beterranoak ere badoaz apurka-apurka. Marina Maurtua kapitain handiarena izan da azken agurra. Baina mugimendu horiek ez dute taldea desorekatu. Mirari Aldekoak eta gainerako jokalariek gogoz hartu dute aginte makila, eta Tabirako oso ondo sailkatuta dago lauko finala jokatzeke.

Aulkian aldaketa egon da aurten. Zelan hartu zenuten Jesus de Vicenteren agurra?

Kolpe gogorra izan zen. Gogoan dut denok batu gintuenean, taldea utzi egingo zuela esateko. Askok

negarrez amaitu genuen. Aita baten modukoa izan da guretzat, eta asko arduratu izan da beti gutaz. Ni beragaz hasi nintzen lehen taldean. Urte ederrak egin zenituzten bere aginduetara.

Igoera fase bat jokatu genuen, gero beste bat... Hainbat urtez gertatu ez zena gertatzen hasi zen. Loraldi bat gertatu zen. Konturatzen zara ez zela joko kontua bakarrik, gehia-

“

Gazteek dudak dituzte eta galderak egiten dizkizute. Orduan konturatzen zara gero eta pisu handiagoa daukazula taldean”

”

go da: taldeko giroa, elkarregaz oso ondo konpontzen garena...

Zelan joan da erreleboa?

Antxon Imaz [lehen entrenatzailea] Joseba Arkarazo eta Maren Ormaetxea daude orain. Trantsizioa ezin hobeia izan da, nik pentsatzen nuen baina hobeia, egia esanda. Tabirako barrutik eta oso ondo ezagutzen dutenak dira.

Taldea utzi duen beste bat Marina Maurtua da.

Erreferente bat izan da, lider bat. Marina goian zegoen, eta besteok beherago geunden. Ahal dugunean, beragaz egoten gara, eta gure partiduak ikustera etortzen da.

Eta nork ordezkatu du liderra?

Bere papera hainbaten artean banatu da. Orain Nuria Maurtua da taldeko kapitaina, Marinaren ahizpa.

Zuri eta taldean urte batzuk daramatzazuenoi erantzukizun gehiago hartzea egokitu zaizue?

Apur bat, bai. Azkenean, urte batzuk daramatzat taldean. Pare bat kenduta, ni eta beste batzuk gara taldeko nagusienak. Normala den moduan, igotzen diren gazteek dudak dituzte eta galderak egiten dizkizute. Orduan konturatzen zara lehen baino pisu handiagoa daukazula taldean. Prozesu natural bat izan da. Gustatzen zait, pozik nabil.

Norengandik ikasi duzu?

Izen bat esan behar badut, garbi daukat: Marina Maurtua. Talde nagusira batzen zarenean konturatzen zara norberak eman behar duela berea, ez duela beste inork

egingo zure orde, eta nire prozesu edo garapen horretan Marina oso garrantzitsua izan da.

Zelan dago harrobia? Gazte berriak batu dira taldera?

Hiru jokalarik debutatu dute eta oso ondo moldatu dira. Iaz Antxon eta Maren izan zituzten entrenatzaile eta hori lagungarria izan da. Esaten diezuna kontuan hartzen dute eta ikasteko gogoz etorri dira.

Eskolta da zure postu naturala, baina aurten beste postu batzuetan aritzea egokitu zaizu.

Bai. Zorte txarra izan dugu. Jokalari batzuk belaunetik txarto dabilta eta joko antolatzaileak dira. Antxon bere konfiantza eskaini zidan joko antolatzaile aritzeko, eta horretan aritu naiz.

Gustura zabilta?

Hasieran ni postu horretan ez jartzeko esan nion entrenatzaileari. Baina, egia esanda, partiduak aurrera joan ahala, gero eta gusturago eta hobeto sentitu naiz joko antolatzaile postuan.

Zer ikasi duzu postu horretan?

Partiduaren erritmoa eramaten. Aurkariak urduri daudela? Ba,

“

Gure abiaduran konfiantza dugu. Tabirakoren filosofia dela esango nuke: gogor defendatu eta azkar irten”

”

partiduari erritmoa jartzen saiatzen zara. Edo alderantziz. Zure taldeak une bakoitzean zer behar duen baloratu behar duzu. Zenbakietan islatzen ez den lana da.

Jokalaria garai askorik ez, eta intentsitatean oinarritu duzue jokoa azken urteetan. Aurten ere bai?

Oraindino joko intentsoago dela uste dut. Beti aurkariaren gainean egoten saiatzen gara. Gure hanketan, abiaduran, konfiantza dugu. Garaiera aldetik, ezin dugu besteen kontra lehiatu, eta korrika egiten saiatzen gara. Tabirakoren filosofia dela esango nuke: gogor defendatu eta azkar irten.

Beste behin ere, oso ondo sailkatuta zaudete lauko finala jokatzeke.

Bai. Bigarren tokian amaitzea da helburua, gaur egun Loiola dagoen postuan. Horrela, lauko finala Durangon jokatzeke eskubidea irabaziko genuke eta horrelako partiduak etxean jokatzea, zaleen aurrean, itzela da. Zoritxarrez, lehen itzulian galdu egin genuen Loiolaren kantxan, eta orain garaipen bat aurretik daude. Etxean jokatuko dugun itzuliko neurketak garrantzi handia du.

Gizonen taldea ere bikain dabil.

Ederto dabilta, lidertzatik garai-pen batera. Lehenengo amaituz gero, zuzenean igoko lirateke EBA mailara. Lortu dezaketela uste dut. Oso ondo jokatzen dute eta partidu osoan intentsitate handiz aritzen dira. Talde konpletua da, errota-zioak egitea ahalbidetzen duena.

Ohorezko B Mailari agur esan diezaioke DRTk eta Euskal Herriko Liga berrian jarrita du begirada

Jaitsiko direla "barneratuta" dutela dio DRTko presidenteak, eta hainbeste urtez hain goian egon izana nabarmendu du



Durango Nissan Gaursak orain asteburu bi lortu zuen ligako lehenengo garaipena. **PEDRO MORENO.**

ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO

Hamabost urte iraun duen abentura bere azkenera heltzeko zorian dago. Durango Nissan Gaursak gizonen talde nagusia Ohorezko B Mailari eusteko aukerarik barik geratu daiteke asteburuan. Sailkapeneko egoerak eta etorriko den aurkariak ez dute beste hausnarketa baterako zirrikiturik uzten.

Lau jardunaldi falta dira liga amaitzeko, eta Durango Nissan Gaursak lehen hiru sailkatuen kontra jokatu behar du oraindik. Esaterako, zapatu honetan, 18:00etan, Getxo bigarren sailkatuak bisitatuiko du Arripausueta. Getxoztarrak garaipen gosez etorriko dira euren helburuak lortzeko.

Denboraldi osoan partidu bakarra irabazi du DRTk eta garaipenak

behar ditu mailako talderik indartsuenen kontra. Hala eta guzti ere, beste emaitza batzuei begira egon behar luke. Azken aurreko sailkatua 16 puntu goitik dute.

Testuinguru horretan, maila galduta dutela "barneratuta" dutela adierazi du Juan Mari Iriondo DRT-

Durango Nissan Gaursak sailkapeneko aurreneko hiru taldeen kontra jokatu behar du oraindik

ko presidenteak. "Noizbait heldu behar zen", gehitu du. Geratzen diren partiduetan "ahalik partidurik onenak" jokatzeari da helburua. Euskal Ligara jaistea normaltasu-

nez hartu dute, eta logikaren kontrako hainbeste urtez Ohorezko B Mailari eutsi izana, Iriondoren esanetan. "Urterik urtera, aurkariak diru gehiago gastatu eta kanpoko gero eta jende gehiago fitxatzen dute. Gu ez gaude bide horretan", adierazi du harrobiaren garrantzia azpimarratu aurretik. "Taldea askok kanpokoak fitxatzen dituzte eta horrek harrobiari eragiten dio. Indar guztiak goian ipiniz gero, beheko taldeak ahultzen dira", arazoitu du. Hain zuzen, harrobia da DRTren indargune nagusia. Gaur egun, 14 urtera arteko 160 neska-mutil dabilta errugbian.

Etorkizunari begira

Aldaketak datoz errugbiaren munduan eta DRT aukera berrien tre-

na hartzeko prest dago. Hainbat erakunde Euskal Herriko Liga bat sortzeko lanean dabilta. Iparraldeko eta Hego Euskal Herriko taldeek osatuko lukete. Hurrengo denboraldian ez bada, hemendik bira egon daiteke martxan, eta DRTk bertara batzeko asmoa du.

"Taldea askok kanpoko jokalariek fitxatzen dituzte eta horrek harrobiari eragiten dio"

"Hor jarrita dugu begirada", onartu du Iriondok. "Liga potentea izan daitekeela uste dugu eta joan-etorriak askoz ere eramangarriagoak lirateke", adierazi du.

Jokaldia

Eneritz Iturriaga
Mazaga
Txirrindulari ohia



Kirola heziketa modura

Ama izan naizenetik, gero eta argiago ditut kirolaren balio onak. Haurtzaindegira goizago joaten naiz, eta bertan ume guztiak jolasean ibiltzen dira hara eta hona: futboleak, saskibaloia... eta nire arretera erakartzen dute bertan ikusten ditudan kontu batzuek.

Alde batetik, neskak eta mutilak, denak elkarrekin jolasten eta elkar errespetatzen ikusten ditut. Bestetik, bakoitzaren izaera azaleratzen da, diren bezalako agertzen dira. Taldeko lan handia ikusten dut, denek helburu berdina daukatelako, eta ume batek haserre aurpegia daukanean, denen artean alaitzen dute. Ikusten ditudanean, balio horiek guztiek txundituta uzten naute.

Jakin badakit salbuespenak daudela, noski. Egia da, baita ere, telebistak laguntzen duela, kirolarien ibilerak erakusten dituzte eta beti umeen ahotan izaten dira Messi, Cristiano Ronaldo edo bertoko (Muniain, Aduriz...) jokalarien izenak. Euren izenak oihukatuz pasatzen dituzte euren jolasaldiak. Baina, horrekin batera, osasuna zaintzen dute kirolaren bidez. Badakigu umeen obesitate maila %15ekoa dela estatuan, eta, gainera, portzentaia hori hazten doala. Beraz, horretan ere lagungarria da kirola.

Horregatik idazten dizuet gaurko iritzi artikulua ama-aitak zareten guztioi. Umea txarto portatzen denean edo nota onak ateratzen ez dituenen, kirola heziketa modura hartu behar dugu. Bertan, ohartu gabe, umeak hezi egiten dira, eta euren autoestimua, heziketa, esperientzia, lehiakortasuna, eta beste hainbat balio lantzen dituzte. Beraz, pentsa ezazue apur bat, eta utzi umeei gozatzeko eta pozik bizitzeko.

CERAMICAS MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER
Chimeneas
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

A. Urreta podólogo
Ainara Urreta Jainaga
OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ
IMQ **MAPFRE**
Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Dallas kafetegia
alokatzen da
Berriztatuta
Tel.: 672436085
Dallas

Gorka Otaduy joko puntu onean heldu da Biharko Izarrak pilota txapelketara

Afizionatueta pilotaririk onenetakoak etorriko dira Mallabiara

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Aste honetan hasi eta ekainera bitartean, afizionatu mailako pilotaririk onenetakoak igaroko dira Mallabitik, Biharko Izarrak txapelketaren barruan. Azken aldietan gertatu den moduan, Durangaldeak ordezkari bakarria izango du: Gorka Otaduy berriztarra.

Urtea hasi denetik hona, maila handian dabil Otaduy. 2019 hasieran Tolosako Miguel Soroa txapelketa irabazi zuen Iker Salaberriagaz bikotea osatuz. Gaur arratsaldean, berriz, Lezamako pilota txapelketako finala jokatuko du. "Mallabiko txapelketara joko

puntu onean heldu naiz", onartu du. Aurten laugarrenez parte hartuko du Mallabiko txapelketan. Aurrekoetan ez du lehenengo fasea gainditzea lortu. Lehenengo eta behin, neure maila ematea eta ondo jokatzea ditut helburu. Hori lortzen badut, finalerdietarako txartela posible izan daiteke, baina badakit maila handiko pilotariek parte hartzen dutena", adierazi

Datozen hiru hileetan, eguenero eta asteburu batzuetan jokatuko dira txapelketako jardunaldiak

du. Txapelketako lehenengo partidua martxoaren 7an jokatuko du. Egigurenegaz bikotea osatuz, Zubizarreta eta Aizpuru izango ditu aurkari.

Partiduak, eguenero

Atzo jokatu zuten txapelketako lehenengo jardunaldia, eta datozen hiru hilabeteetan eguenero, 21:15ean, eta asteburu batzuetan jokatuko dira partidua. Zapatu honetan, esaterako, lehia bi ikusteko aukera egongo da Mallabiko pilotalekuan. Lehenengoan, Elolak eta Alduntzinek Garciaren eta Aldaberen kontra jokatuko dute; bigarrenean, Etxebarría eta Ibarloza Agirreamalloaren eta Aizpuruaren kontra arituko dira.



Zelai nagusian belar naturala kendu eta artifiziala jarriko dute.

Abadiño klubekoak haserre, zelaiko lanak direla-eta

Udalaren eta obren ardura duen enpresaren "utzikeria" salatu dute komunikatu baten bitartez

FUTBOLA • J.D.

Astolako futbol zelaian belar artifiziala jarriko zutela ikusita, Abadiño Kirol Elkartek sei talde berri atara ditu aurten: 18 dira guztira. Iazko urrian amaitzekoak ziren lanak oraindik martxan daudela diote, eta hasi ere ez direla egin aldagela berriak eginen. Bitartean,

talde batzuk Durangoko Jesuitetan entrenatzen dabilta. Udalaren eta enpresa arduradunaren "utzikeria" salatu dute. "Azken hiru hileetan, hiru astetan ere ez dira lanean aritu", kritikatu dute komunikatuan. Sarritan eguraldi txarra "aitzakia" moduan erabili dela uste dute.

Zaldibarren, nesken lehen frontenis torneo jokatuko dute

FRONTENISA • J.D.

Zaldibarko pilotalekuak nesken lehenengo frontenis torneo hartuko du, zapatuan. Goizean, 10:00etan, hasiko da multzoen fasea, eta horren ostean finalerdien txanda izango da. Finala 19:30ean jokatuko dute. "Egun bakarreko

txapelketa egin gura izan dugu lehenbiziko urte honetan, eta horregatik jarri dugu bikote kopuru mugatua", adierazi du Jabier Vidal Zaldibarko Kirol eta Kultura Saileko arduradunak.

Guztira, hamabi bikotek jokatuko dute lehen aldi honetan. Hainbat herritatik heldutako bikoteek jokatuko dute txapelketa. Besteak beste, Debatik, Salamancatik, Soriatik eta Errioxatik etorritako jokalariek.



Astelehenean Trabakua Beheko jatetxean egindako aurkezpenera txapelketako hainbat pilotari batu ziren. JULEN URIBE

Asteko kirolaria



OIER ARIZNABARRETA AGIRRE

Durango, 1983

ATLETISMOA • Esperientzia handiko korrikalaria da, baina maratoi batean estreinaldia izan du Oier Ariznabarreta durangarrak astebu-

“Mendiko lasterketek maratoietarako oinarri bat egiten lagundu didate”

Bere lehenengo maratoiaren 19. postua lortu du Oier Ariznabarreta durangarrak

ruan. Sevillako maratoiak 42 kilometro eta 195 metroak 2.19.02ko denboran osatu zituen eta 19. tokian amaitu zuen lasterketa.

Asteburuan Sevillako maratoiaren debututa duzu. Nola joan da?

Oso urduri joan nintzen. Urtarrilean aita hil zitzaidan eta ezin izan nuen hasierako prestaketa bete. Urtarrilean, aste bitan baino ez nintzen entrenatu, eta, beraz, ez nuen maratoiak ondo

prestatu. Irteeran oso urduri nengoen, ez nekien ze taldetan joan, baina, azkenean, asmatu egin nuen. Erritmo onean eramanez ninduten. Kilometroak aurrera egin ahala, lasterketak bere lekuan utzi gintuen. Jarraitu ezin zutenak atzean geratzen hasi ziren eta, azkenean, talde horretatik, bi-hiru lagun helmugaratu ginen elkarregaz. Amaierara arte, bakoitzak bere onena ematea geneukan helburu.

Esperotako emaitza izan da?

Esperotakoa baino hobea. Abenduan, 2:20ko denbora egitea nuen helburu. Baina, urtarrilean, prestaketa txarto neramala ikusita, 2:23 edo 2:24ko denbora egitea jarri nion erronka neure buruari. Lasterketan ez nintzen konturatu ere egin ze erritmotan nindoan, eta, azkenean, 2:19:02ko denbora egin nuen eta oso pozik nago lortutakoagaz. Gainera, sentsazioak ere oso

onak izan ziren, eta dena erritmo berean egitea lortu nuen.

Sevillan lehen maratoiak egin duzun arren, distantzia horretako lasterketak egin dituzu mendian. Distantzia horretako lasterketa gehiago egiteko asmoa duzu?

Mendiak zaildu egiten du pertsona. Mendiko lasterketak, nahiz eta sarritan kilometroz laburragoak izan, luzeak egiten dira desnibelarengatik. Mendiko lasterketek maratoietarako oinarri bat egiten lagundu didate. Orain, maratoiak hobeto prestatzea da nire asmoa, mendiko lasterketak alde batera utzi barik. Gainera, lasterketa batzuk urtero egiten ditut eta dagoeneko egutegian markatuta ditut.



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA/NEGOZIOAK
- DENETARIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA/KIROLA
- FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Abadiño. Abadiñon Mendiola auzoan, lokal bat alokatzen da, orain TXOKO moduan dago, baina beste erabilera batzuetarako ere erabili liteke, adibidez enpresa batzarretarako, biltegiarako, ostatu eta abar. Umeek jolasteko leku handia dauka eta aparkaleku ederra. Informazio gehiago nahi baduzu deitu 600464411 telefonora. etxetu53@gmail.com

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

Zaintzaile moduan lan bila.
Zaintzaile moduan lan bila nabil.

Adineko pertsonak zein haurrak zaintzen esperientzia daukat. Orduka edo barneko langile moduan lan egiteko prestutasuna daukat. Berehalako disponibilitatea. Interesa duenak ondorengo telefonora deitu nazala, gaztelaniaz mesedez: 631 925 525

Esperientziadun umezalna. Irantzu naiz eta Durangon bizi naiz. Urte askotako esperientzia daukat umeak zaintzen eta begirale moduan. Umezain lan bila nabil. Ahal izanez gero ordu solteak edo lanaldi erdira. Tel.: 644411174

IRAKASKUNTZA

Zientziako klase partikularrak.
DBH (3. eta 4. mailan) eta Batxiler-goan laguntza klaseak ematen ditut:

matematika, fisika/kimika eta teknologia ikasgaietan. 5 urtez irakaskuntza formalean ibili naiz eta zientzietako ikasgaietan daukat formaziorik handiena. Interesik badaukazue jarri nirekin harremanetan: 669 69 24 30 (Ane)

LAN ESKAINTZAK

PLANTXA ORDUKA EGITEN DUT. Esperientzia handiko emakumea, orduka plantxa zein etxeko lanak egiteko prest. Durangon edo lurretan. Tel.: 645 70 6839

PERTSONAK ZAINDU

Adinekoen zaintza lanak. Adineko pertsonen zaintzan lan bila nabil. Eskarmentuarekin. 21 urte ditut. (gaztelania) jorgebeloorin@gmail.com

Etxeko lanak egiteko, edo adineko pertsonak zein umeak zaintzeko lan bila nabil. Kaixo, etxeko lanak egiten, zein adineko edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Neska latinoamerikarra naiz, arduratsua, tratu onekoa. Jendearekiko harremana gustatzen zait. Edozein inguru zein pertsonengana egokitze gaitasuna daukat eta azkar ikasten dut.

Barneko langile moduan lan egiteko prest nago, adineko pertsonak edo umeak zaintzen edota etxeko lanak eta janaria prestatzeko ere. Berehalako prestutasuna daukat. Bizkaia edota Gipuzkoan. Telefonoz edota whatsappz kontaktatu, gaztelaniaz mesedez. 644930679


Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest nago, Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuek deitu edo Whatsapp-a bidali 602895018 telefonora. Gaztelaniaz mesedez.

Barneko langile gisa lan bila.

Adineko pertsonak (barneko langile) edota haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa lanak egiteko, arropa lisatzeko, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin: 644558390



Deskarga ezazu
aste honetako
ttap
Irakurri, ukitu, ikusi, entzun.



Aktualitatek
gaiak, poltsikoan

Gozatu Ttap
zentzumen guztiekin

Bi edizio:
Bizkaia eta Gipuzkoa



Botikak	
BARIKUA, 22 - 09:00-09:00	BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO
ETXEBARRIA	MELERO, ROSA MARI
Montevideo etorb. 2. - DURANGO	San Pedro 31 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI	09:00-22:00
San Pedro 31 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis
09:00-22:00	Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte	ASTELEHENA, 25 - 09:00-09:00
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	BALENCIAGA
SARASKETA, DIEGO Luis	Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis
IRUARRIZAGA, KARMELE San	Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
Miguel 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
ZAPATUA, 23 - 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 -	poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San
MELERO, ROSA MARI	Miguel 15 - ZORNOTZA
San Pedro 31 - ZORNOTZA	MARTITZENA, 26 - 09:00-09:00
09:00-13:30	UNAMUNZAGA Muruetatorre
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	2C - DURANGO
ETXEBARRIA	SARASKETA, DIEGO Luis
Montevideo etorb. 2. - DURANGO	Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
BALENCIAGA	09:00-22:00
Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
SAGASTIZABAL	poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
Askatasun etorb. 19 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	Miguel 15 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurrondo 22. - DURANGO	EGUAZTENA, 27 - 09:00-09:00
CAMPILLO Montevideo	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
etorb. 24 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis
UNAMUNZAGA Muruetatorre	Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
2C - DURANGO	09:00-22:00
EGUREN, ISABEL	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
Trañabarren 15. - ABADIÑO	poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
JAIO-ABENDIBAR	IRUARRIZAGA, KARMELE San
Errekakale 6. - ELORRIO	Miguel 15 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15	EGUENA, 28 - 09:00-09:00
- ZORNOTZA	NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
09:00-14:00	SARASKETA, DIEGO Luis
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis	IRUARRIZAGA, KARMELE San
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	Miguel 15 - ZORNOTZA
DOMEKA, 24 - 09:00-09:00	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. **DURANGO**
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Zorionak, **Enaitz (752. alea)**!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.

Domekan, otsailak 24, **Juleneren** 8. urtebetetzea ospatuko dugu eta urtarrilean **Jasoneren** 12.a eta **Koldoren** 11.a ospatu genituen. Zorionak etxeko guztien partez eta musu potoloak!

Jarek 7 urte bete zituen otsailaren 20an. Txokolatzeko muxu potoloak familia guztiaren partez!

Zorionak, **Iraia**, etxekoon partez! Mosu bat!

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 18° / 6° ☀️	ASTELEHENA 🌧️ 20° / 8° ☀️	EGUAZTENA 🌧️ 15° / 8° ☁️
DOMEKA 🌧️ 18° / 6° ☀️	MARTITZENA 🌧️ 19° / 6° ☀️	EGUENA 🌧️ 13° / 7° ☁️

DURANGALDEKO ALBISTEAK JASOTZEKO BIDE BERRIAK

Anboto Komunikabideak
@anboto
@anbotokomunikabideak

Whatsapp bidez
Bidali 'ALTA' 688 635 041 zenbakira whatsapp bidezko mezua bidalita

Telegram bidez
Bilatzailearen bidez 'ANBOTO' kontua topatu eta jarraitzen hasi

“Txitxiburduntzia egiteko ohitura indartu egin da azken urteetan Durangon”

Durangoko Alpino Tabira mendizale taldeak txitxiburduntzia egiteko hitzordua jarri du, domekarako. Inauterien aurrekari den ohiturak gero eta jende gehiago batzen du

Iñaki Calvo Sanagustinetxebarria
• Alpino Tabirako lehendakariordea

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Usadioari eutsita, Txitxiburduntzi edo Basokoipetsu Eguna ospatuko dute, domekan, Durangaldeko txokobazter gehienetan. Durangoko Alpino Tabira mendizale taldeak ere egin du deialdia, aurten 37. urtez: Andra Marian batuko dira, 08:30ean, eta Larri-nagatxutik Santa Agedarako (Izurtza) bidea hartuko dute, txitxiburduntzia egiteko. Jatekoa bakoitzak ipiniko du; edaria eta sua, Alpino Tabirak.

Baduzu txitxiburduntzirako makila?

Elkarteko kide den Kepa ardura-tzen da horretaz. Makila mordoxka prestatzen ditu Txitxiburduntzi Egunerako. Sua ere berak egiten du. Makila sartzeko orduan, borroka ere izaten da, parrilak ez du denontzat ematen eta. Txandari itxaron behar izaten diogu.

Berba bitan

Mendi bat?

Anboto, hori da nire mendia Txitxiburduntzirako, txorizoa ala hirugiharra?

Biak.

Zerk hasarrarazten zaitu?

Mundu honetan gertatzen diren injustiziak. Askok dira.

Mendi buelta egiteko, norekin?

Lagunekin.

Elkarteko idazkari lehenengo, lehendakari gero, eta, orain, lehendakariorde. Aurten, 35 urte beteko dituzu Alpino Tabirako Zuzendaritza Batzordean. Beste horrenbeste daramatzazu Txitxiburduntzi Eguna antolatzen?

Azkenaldian, gura nukeena baino gutxiago. Baina saiatzen naiz joaten. Domekan 37 urte izango dira Txitxiburduntzi edo Basokoipetsu Eguna antolatzen dugula. Ehundik gora lagun batzen gara, eguraldi onagaz gehiago. Harrera oso ona du.

Errotutako ohitura da zure ustez?

Bai. Azken urteetan ohitura indartu egin dela esango nuke. Durangon ere indartsu dago. Lehen, baserrietan, auzo batzuetan... eusten zioten. Herri batzuetan ere bai. Iurretan, adibidez.

Inauterien iragarle izaten da. Mozorro zalea zara zu?

Lehen gehiago! Ez daukat mo-zorrorik prest, baina jantziko dut zerbait. Sanfaustoetan ere animatzen gara.

Nondik datorkizu mendirako zaletasuna?

Aita mendizalea zen. Bera-gaz hasi nintzen mendira joaten; perretxiko bila laguntzen nion. Gerora, lagunekin joan naiz, kuadrillan. Denok Alpino Tabirako bazkide izanik, zapatodomekero joaten ginen. Hemen inguruan lehenengo. Gero, Pirinioetara eta Alpeetara. Mont Blanc-en (Frantzia) eta Italian ibili izan naiz.

Zer ematen dizu mendiak?

Askok! Mendira joateak lasaitasun handia ematen dit, bakea. Mendiaren aitzakian, hainbat toki ezagutu ditut, jende asko ere bai. Urteetan elkar ikusi barik egon garen lagunak, mendian egiten dugu sarritan bat.

Belaunaldi berriengan ikusten duzu zaletasunik?

Aspaldi batean ume piloak dabil mendian, eta eurei galdetuta, asko gustatzen zaiela diote. Gero eta ume gehiago dira bazkide. Guraso Taldea ere badago Alpino Tabiran, orain hiru urtetik hona, umeekin egiteko irteerak antolatzen dituen. Guraso eta bazkide dira, eta

behar dutena eskura jartzen die elkarteak.

Badago, beraz, umeen artean mendizaletasuna bultzatzeko trikimailurik. Beste jolas batzuekin animatu behar dira umeak mendira joatera. Gurasook zerbait asmatu behar dugu, aspertu ez daitezen. Hori bai, ezin dituzu umeak mendira joatera derrigortu. Kontua ez da mendiari ernegua hartzea. Txitxiburduntzi Eguna edo Elkarte Jaia aukera onak dira umeentzat.

Euskaldunak oso mendizaleak garela diote. Egia da?

Bai. Euskal Herrian federatu lizentzia asko daude. Oso menditsua ere bada gure ingurua. Durangon, mendizalea izan ez arren, mendia hain hurbil edukita, erraz sortzen da mendi buelta egiteko gogo. Madrilen bizi den lehengusu bat Urkiolan geratzen da Durangora datorren bakoitzean, Hiru Gurutzeetan, Anbotoko mendilerroa ikusteko. Horrelakorik ez dagoela dio.

Lau hortza

Ainhoa Olaso Sopelana Ikailea



Korneta-jolea

Bada korneta haize instrumentua jotzen duen gazte bat. Metalezkoa da bere korneta, inbutu forma du eta mutur estuenetik egiten dio putz. Eskura duen giltza biratuz sortzen du melodia, beste aldeko zulo zabaletik irteten dena (gaztearen ezpainen dardararen haize indarra).

Mendi bat kili-kolo jartzerainoko emozio lurrikarek zeharkatzen dute gaztea, gorputza dardaratzetaino. Baina ezinezko egiten zaio bizi duen guztiaren tamaina basa eta surrealista kornetarekin adieraztea.

Orkestra bateko sinfonia interpretatzearen parekoa da gure sentimenduak ñabardura eta guzti ezberdintzeko kapazitatea

Berdin zaio agur melodia edota sehaskakoa izan. Kezkatuta edo alai egon. Bada inon intentzioa asmatu eta doinu hori jarraituko duenik?

Orkestra bateko sinfonia interpretatzearen parekoa da gure sentimenduak ñabardura eta guzti ezberdintzeko kapazitatea (biziak eta pasiozkoak edo delikatuak eta sentiberak)! Entzun, sentitu eta interpretatu. Eta zein ahalmen da norberaren sentimendu eta beharrak adierazteko gaitasunarekin konparagarria?

Hau ez da distopia bat, baina emozioek korneta askoren inbutuetan hartzen dute aterpe, ikusgai (edo entzungai?) egotearen arriskutik kanpo. Iluntasunarekin puzten dira, gustura daude konposizio eta ehundura endredatuetatik urrun. Denborarekin ugertu arte!



merkataritza
gida sarean

anboto.org/gida



Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)